

hh
hik hasi

198

20 urte euskal hezkuntza ospatuz



GUZTIONTZAKO ESKOLA, GUZTIONTZAKO HERRIA • JAVIER ONRUBIA

• 0-3 FORMAZIOA: BEHAKETA ETA INTERPRETAZIOA • EKARPENA:

UNIBERTSITATEA ETA ERALDAKETA SOZIALA • ANGEL PEREZ GOMEZ:

NEUROZIENTZIA KOGNITIBOAREN EKARPENA HEZKUNTZAN • JON ARTANO

8-12
urte

Puka, erleak eta traktorea
Jokin Mitxelena



Elefante bat hegan
Patxi Zubizarreta • Aitziber Alonso

Bihotzak dun-dun
Miren Agur Meabe • Enrique Morente



Errotondan bueltaka
Leire Bilbao • Eider Eibar

Hau ez da zoo bat!
Alaine Agirre • Iratxe Lopez de Muniain
Lizardi Saria



aurkibidea



10
gaia

GUZTIONTZAKO ESKOLA ETA HERRIA

'II. Herri Hezitzailea, eskola herritarra' jardunaldiak antolatu ditu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, bere XX. urteurrenaren harira. Zeregin horretan Oinherri ekimena izan du lagun, hain zuen herri hezitzailearen sareak sortutako egitasmoa. Izan ere, aniztasunaren ildotik, haur guztiak barnean hartuko dituzten eskolen eta herrien inguruan hausnartu dute jardunaldietan.



17
elkarrizketa

JAVIER ONRUBIA

Aniztasunaren kudeaketan aditua da Onrubia, eta horren inguruko hitzaldia eman zuen Ikastolen Elkartek antolatutako XXII. Jardunaldi Pedagogikoetan. Ikasle bakoitzaren premietara egokituko den eskola sortzearen garrantziaz mintzatu da, eta horretarako inklusioa irakaskuntzaren erdigunean jartzea proposatu du.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

GUZTIONTZAKO ESKOLA, guztiontzako herria

17 elkarrizketa

JAVIER ONRUBIA, katedraduna Psikologia Ebolutiboan eta Hezkuntzan

24 LOMCEri ez! Gure hezkuntza eraiki!

Mikel Ormazabal, Kristau Eskolako zuzendaria

28 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

Behaketa eta interpretazioa, Malaguzziren bidetik

30 ekarpena

Unibertsitatea eta eraldaketa soziala

36 galdeidazue

Zer ekarpen egin diezaioke neurozientzia kognitiboak hezkuntzari? Angel Perez Gomez

40 Proposamena: Ikastola Elkarteen familia-egonaldiak

42 Atzeko atetik

Jon Artano. Kazetaria

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez, Matilde Sainz eta Amaia Vazquez. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-04-30). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia, benetan!



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

www.hikhasi.eus

Prezio horren barruan
10 aldizkari, eta opari bat.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan,
jardunaldietan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan



hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 - 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala maiatza

Desberdinak osatzen gaitu



Aniztasuna egoki kudeatzea da gaur egungo hezkuntzaren erronka nagusienetako bat eta inklusioak izan behar luke iparrorratz, hots, haur bakoitzaren premietara egokitutako eskolak

Denok desberdinak gara eta guztiok gara bakarrak. Desberdinak gara kultura, hizkuntza, familia, maila sozio-ekonomiko, gaitasun, pentsaera, ideia, ezaugarri fisiko, zaletasun edota sinesmen ezberdinak ditugulako. Baina desberdinak gara geure baitan ere, egun batetik bestera aldatu egiten gare-lako, eta egoeraren arabera era batera edo bestera jokatzeko dugulako; ez gara berdinak lanean, etxean, kalean edota lagun artean.

“Munduan ez gaude bi pertsona berdin, eta gainera, egunetik egunera ezberdinak gara”, gogoratu zigun Koldo Saratxagak “II. Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldian. Ildo berean mintzo da Kristau Eskolaren zuzendari Mikel Ormazabal ere aldizkari honetako LOMCEren inguruko atalean: “Aldatu egiten gara edo ezberdinak gara une eta egoeren arabera”.

Datozen orrietan behin eta berriz ageri da aniztasunaren gaia. Jone Miren Hernandezek erreportaje nagusian

dioen moduan, aniztasuna abiapuntua da, oinarritzko errealitate bat: “Mundua zerbait bada, anitza da”. Javier Onrubia Psikologia Ebolutiboko eta Hezkuntzako katedradunak aniztasun hori jartzen du haur eta gazteen heziketaren erdian. Elkarrizketa nagusian dionez, aniztasuna egoki kudeatzea da gaur egungo hezkuntzaren erronka nagusienetako bat eta inklusioak izan behar luke iparrorratz, hots, haur bakoitzaren premietara egokitutako eskolak.

Azken ikerketek kontrakoa erakusten badute ere —pertsona bat era askotakoa izan daitekeela bizi duen momentuaren eta dagoen ingurunearen arabera—, pentsatu ohi dugu bakoitza den bezalakoa dela, naturak horrelakoa egin duela, eta ez dagoela atzera bueltarik. Psikologiaren arloan ere ideia horixe nagusitzen da maiz: “Halako lotsatia da, beste hura bihozbera da, hemengo hau berekoa eta beste hori oso bizkorra”. Ikuspegi horrek pertsonak epaitzera eramanez gaitzake, ikasle-

en gaineko aurreiritziak egitera, haurra etiketa jakin baten arabera tratatzera edota aldamenekoa juizio jakin bartzuen arabera sailkatzera.

Alfredo Hoyuelosek 0-3 formazioari dagokion atalean azpimarratzen duenari jarraiki, norbanako bakoitzaren begirada beti da partziala, eta norberaren usteetan, bizipenetan, jarreretan... dago oinarritua: “Alegia, begirada beti izango da subjektiboa, eta, ondorioz, baita behatutakoaren inguruan egindako interpretazioa ere”.

Haurraren portaeren interpretazio objektiboagoa lortu ahal izateko bestearren begiradaren beharra dugula azpimarratzen du Hoyuelosek. Hortaz, aniztasuna errespetatzeko eta pertsona bakoitza bere bakartasunean ulertzeko gakoa, begiradaren pluraltasunean egon daiteke. Hau da, norberaren errealitatea interpretatzeko modua bestearekin, alboarekin, niregandik diferente den horrekin osatzea izan daiteke dibertsitatea egoki kudeatzeko giltza.

hizpide

3 ikastola berri irekitzea erabaki du Seaskak

Urtez urte gora doa beraien haurrak ikastolan matrikulatu nahi dituzten gurasoen kopurua Ipar Euskal Herrian, eta, eskaerari erantzuteko, Seaskak datorren ikasturterako 3 ikastola berri irekitzea erabaki du. Lapurdin sortuko dituzte horietako bi: Basusarrin bata eta Biriatun bestea. Hirugarrena, berriz, Behe Nafarroan irekiko dute, Azkaraten hain zuzen. Herri txikiak dira eta ez dute espero ikasle kopuru handirik lehen ikasturtean, baina euskarazko eskaintza leku guztietan bermatu behar dela diote Seaskako ordezkariak: "Ikastolak gainezka daude, eskaera sozial handia dago eta horrek behartzen gaitu ikastola berriak irekitzera."

Irakasle musulmanak falta direla salatu du Ucide-k

1992an onartu zen Espainian erlijio islamiarraren heziketa arautzen duen akordioa, baina Ucide-k (Espainiako Komunitate Islamiarraren Batasuna) salatu duenez, Hego Euskal Herrian bi irakasle islamiar daude 9.133 ikasle islamiarrentzat. Bi irakasle horiek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako dira, eta horiek Lehen Hezkuntzako oinarrizko eskari bati erantzuteko balio duela dio Ucide-k. Bestalde, jakinarazi du Nafarroan ez dagoela erlijio islamiarrerako irakaslerik ikastetxe publikoetan.



65 gazte-taldeek aurkeztu dituzte beraien zientzia proiektuak jendaurrean, Elhuyarren Zientzia Azokan

Elhuyarrek antolatuta, Zientzia Azoka egin zuten apirilaren 25ean Bilboko Plaza Barrian. Bertan, Hego Euskal Herriko 14 ikastetxetako 204 gaztek ikasturte honetan zehar landu duten zientzia edo teknologia alorreko proiektua aurkeztu zuten, batik bat ingurumenaren eta osasunaren ingurukoak. Gazteek 65 taldetan banatuta egin zituzten proiektuak, eta talde bakoitzak bere stand-a izan zuen azokan, proiektua aurkezteko. Hala, bertara hurbiltzen ziren herritarrei azaltzen zieten zer egin duten eta zer helbururekin.

Jendaurrean beraien proiektuak aurkezteaz gain, gazteek esperimenduak egiten jardun zuten horretarako prestatutako gunean, begiraleen laguntzarekin. Eta, amaieran, sariak jaso zituzten lan onenen egileek. Zientzia eta teknologiaren alorreko ikertzaileek eta dibulgatzaileek osatu zuten epaimahaia.

Gazteek egindako proiektu zientifikoaren erakusketa bat da Zientzia Azoka. Ikasturtean zehar, aukeratutako gaiaren inguruan aritu da lanean ikasle-talde bakoitza, eta emaitza ikerketa-proiektu edo proiektu-teknologiko bat izan da. Ikasturtean zehar ikertzaile profesionalak izan dituzte ikasleek bidelagun, lana bideratzen laguntzeko eta abenturak eta bizipenak partekatzeko. Gazteen artean zientzia-zaletasuna bultzatzeko, kultura zientifikoa sustatzeko eta hemengo eta gaurko zientzia hedatzeko tresna da.

Protesta eta mobilizazioak egin dituzte Ipar Euskal Herriko gurasoek eta irakasleek eskoletako murrizketen aurka



Paueko Akademia Ikuskaritzak iragarri dituen neurriek protesta eta mobilizazioak eragin dituzte Ipar Euskal Herriko ikas komunitateko kideen eta sindikatuen artean. Izan ere, alde batetik, hainbat irakasle postu kenduko dituztela jakinarazi du. Zehazki, hamalau frantses irakaslek hurrengo ikasturteetik aurrera euren lanpostua galduko dute; horrekin batera, hiru ikastetxetan beste hainbeste euskara irakasleren lanaldi erdiak desagertuko dira; eta, azkenik, beste zortzi ikastetxetako zortzi lanaldi erdi desagertuko dira, horiek frantses irakasleei dagozkienak.

Horren aurrean, irakasleak eta lanaldiak galduko dituzten hainbat herritan, Maulen eta Ezpeletan adibidez, gurasoek eskola okupatu zuten hainbat egunez. Azken horretan, gainera, gurasoek erabaki zuten euren seme-alabak ez eramatea eskolara egun batez.

SNUipp-FSU sindikatuko ordezkariak salatu zuten, irakasle lanpostuak murriztea beste erabaki batzuen ondorio da. Ipar Euskal Herriko hirietan, Angelun edo Donapaleun kasu, ama es-

kolak eta lehen mailak elkartu egin nahi dituztela salatu dute. Donapaleun, adibidez, dagoeneko egoitza berean dira biak, zuzendaritza desberdinarekin bada ere. Eta, herri txikietan, berriz, ikasgela bakarreko eskolak elkartu egin nahi dituzte.

Asmo horren aurka indarrak batzeko eta ekiteko, ikasgela bakarreko eskoletako gurasoak CCC 64 kolektiboa osatu dute. Ikasgela bakarreko eskolak laster itxiaraziko dituztela salatu zuten, eta dozena bat baino gehiago dira Behe Nafarroan eta Zuberoan. Eskolen bateratze hori sustatzeko, Ikuskaritzak esan du ez dituztela 5 urte baino gutxiagoko ikasleak hartuko, ama eskoletako ikasleentzat ez delakoan pedagogikoki egokia beste adinetako ikasleekin nahastea. Sindikatuek horrek sortzen duen "presioa" salatu dute. Ikuskaritzak, ordea, legea betetzen ari dela dio, 6 urte arte ez baita derrigorrezkoa haurrak eskolatzea.

Honen guztiaren aurrean, sindikatu guztiak protestak iragarri dituzte, *Austeritatearen aurka* lelopean.

LOMCEren azterketak test gisakoak izango dira

Espainiako Gobernuako Hezkuntza ministroa, Jose Ignacio Wert, erkidegoetako hezkuntza ordezkariekin bildu da LOMCE hezkuntzaren erreformarako legeak aurreikusitako errebalida-azterketak nolakoak izango diren azaltzeko. Ministroak azaldutakoaren arabera, 350 galderako test gisako azterketa egin beharko dute DBHko eta Batxilergoko ikasleek etapa horiek amaitzean. Azterketaren amaieran, galdera ireki bat ere erantzun beharko dute, ikasle en idazketa-maila neurtzea helburu duena. Errebalida-azterketa hori gainditzea ezinbestekoa izango da bai DBH bai Batxilergo gainditzeko, eta azken notan eragina izango du. 2016-2017 ikasturtean jarriko dituzte indarrean errebalida-azterketak, proba-pilotu gisa.

Lehen Hezkuntzako 6. mailan, aldez, datorren ikasturtean jarriko dute martxan errebalida-azterketa; horrela aurreikusten du Eusko Jaurlaritzaren Heziberri planak ere. Kasu honetan, ordea, ez da ezinbestekoa izango errebalida gainditzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasatzeko.

Plantoa egin diote Wert ministroari LOMCE aurkezteko eginiko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko, Kataluniako, Andaluziako eta Kanariar Uharteetako hezkuntza-ordezkariak planto egin eta alde egin zuten bileratik LOMCEtik errebalidak kentzeko eskatzeko.

hizpide

Nafarroako Landa Eskolen V. Jardunaldia egingo dute maiatzaren 23an Malerrekan, eta hainbat ikas-lantegi antolatu dute irakasle eta gurasoentzako

Nafarroako Landa Eskolen V. Jardunaldia egingo dute Malerrekan maiatzaren 23an, larunbatez. Izan ere, Nafarroan 70 landa-eskola baino gehiago daude, 12 gunetan banatuta, eta jardunaldi honek helburu du landa-eskolek elkar ezagutzea eta lankidetzarako bideak irekitzea. Horrekin batera, landa-eskola hauek egiten duten lana ezagutaraztea lortu nahi dute jardunaldi hauekin, eta, herri txikiak bizirik mantentzeko eskola hauek duten garrantzia gizarteratzea. Era berean, landa-eskoletako irakasle eta hezkuntza-eragileei gehienetan ezagutzen ez dituzten lan dinamikak ezagutarazi nahi dizkiete.

Horretarako, hamaika ikas-lantegi antolatu dute jardunaldietan, bai euskaraz bai gaztelaniaz, bi txandatan banatuta; parte-hartzaileek txanda bakoitzean ikas-lantegietako batean hartu ahal izango dute parte. **Proiektuka lanean, Zientzia ikasgelan, Bikoteka irakurtzen, Bertsolaritza: adimen emozionala eta beste...** horiek dira eskainiko dituzten ikastaroetako batzuk. Hauek guztiak landa-eskoletako irakasleei, gurasoei eta irakasle-eskoletako ikasleei daude zuzenduta, oro har. Interesa dutenek maiatzaren 7a baino lehen eman behar duten izena. Horretarako, <http://goo.gl/6UmJ15> estekara jo behar dute.

Malerrekako eskola txikiak antolatuta
Santilla, Naboritz, Legasa, Ituren,
Beizua-Labaien, Saklins

maiatzaren 23an
10:00etatik 14:30etara

23 de mayo
de 10:00 a 14:30 horas

Pulunpa IP (Ituren)

Izen ematea:
maiatzaren 23 arte
Ezazu web orria:
hizpide.com
Iturria: el 7 de mayo

Irrien Klubak udalekuak antolatuko ditu Zerainen, ekainaren 28an hasi eta uztailaren 5era bitartean

Irrien Lagunak Klubak eta Zeraingo Aldabe Kooperatibak udalekuak antolatu dituzte beste urte batez, oraingo honetan ere Zerainen. Astebeteko egonaldia izango da, ekainaren 28tik uztailaren 5era, eta Zeraingo Harizti-erdi aterpetxean egongo dira umeak. Hain zuzen, 5 urte eta 10 urte arteko haurrei zuzenduta daude udaleku hauek. Lagun berriak egiteaz gain, natura, kultura, osasuna eta zientzia ezagutzeko hamaika jarduera egingo dute; gainera, Porrotx, Marikalanbre, Tiritatxo eta Largabista ezagutuko dituzte.

Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko, 943 801505 telefono zenbakira deitu daiteke, edo irrienlagunak@aldabe.com helbide elektronikora mezu bat idatzi. Martxoaren 30etik aurrera irekita dago izena emateko epea. Egondia prezioa 270 eurokoa da; 225 euro Irrien Lagunak Klubaren harpidedunentzat.



izango da

Hik Hasiren XVI. Udako Topaketetan izena emateko epea zabalik; aurten, Bilbon ere bai



Maiatzaren 31 arte, zabalik dago Hik Hasiren XVI. Udako Topaketetan izena emateko epea. Aurten, gainera, Hik Hasi egitasmoaren XX. urteurrena izanik, Bizkaian ere antolatu dira topaketak, pedagogia-gaiak ahalik eta jende gehienarengana zabaltzeko asmoz. Ikastaroak uztailaren 1ean, 2an eta 3an egingo dituzte Donostian, EHUren Pedagogia Fakultatean, eta uztailaren 6an, 7an eta 8an, berriz, Leioan, EHUren irakasle-eskolan. Ikastaroak 09:00etatik 14:00etara bitartean emango dira. Arratsaldean, berriz, tailerrak eta saio libreak egingo dituzte.

Askotariko ikastaroak antolatu dituzte Hik Hasik eta EHUK elkarlanean topaketa hauetarako, ahalik eta interes eta behar gehienak asetzeko asmoz. Gauzak horrela, eskolaren berrikuntzarekin, emozioen kudeaketarekin, edota adierazpenarekin loturiko ikastaroak daude, batzuk teorikoak eta praktikoagoak besteak.

Informazio osoa, www.hikhasi.eus webgunean eta aldizkari honekin batera banatutako liburuxkan aurki daiteke.

Saretzen V. Jardunaldia antolatu du Ikaskide Taldeak maiatzaren 15erako, gakoak eta esperientziak trukatzeko

Saretzen V. Jardunaldietako egitaraua aurkeztu du Ikaskide Taldeak, Erkide Irakaskuntzak (Irakaskuntza Arloko Taldea) eta Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultateak osatutako ekimenak. Hainbat ikastetxetako ordezkariak euren esperientziak eta eguneroko erronkak aurkeztuko dituzte, bizi-penak besteekin partekatuz, modu horretan elkarrekin hausnartzeko. Izan ere, hekuntzaren kalitatea hobetzea du xede Ikaskide Taldeak. Besteak beste, Elgoibarko eta Laudioko ikastolek eta Lea Artibai ikastetxeak hartuko dute parte. Jardunaldiak maiatzaren 15ean izango dira, HUHEZIREn Eskoriatzako egoitzan, 09:00etatik 14:00etara.

Proiektu berritzaileak ezagutzeko topaketa, Hegoak Astintzen-en eskutik

Hezkuntza emozionala, integrala eta askea du helburu Hegoak Astintzen taldeak, eta, horren harira, hezkuntza-sistematik kanpo dauden proiektu berritzaileak ezagutzera emateko topaketa antolatu du maiatzaren 8rako, 17:30etik 20:00etara Egiako Kultur Etxean, Donostian. Ekimen horiek ezagutarazteaz gain, horien arteko sarea osatzea ere badute xede.

GAIA

Guztiontzako eskola

Guztiontzako herria





Dibertsitatea ardatz

550 pertsona inguruk hartu dute parte Hik Hasi-ren 20. urteurrena dela-eta, apirilaren 24an eta 25ean Donostiako Kusaalen egin ziren "II. Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldietan. Aniztasuna izan da jardunaldia lotu duen hari-muturretako bat: alde batetik, haur guztiak barne hartuko dituen eskolak eta herriak izan beharko lituzketen ezaugarriak bistaratu dira; eta bestetik, haurra bere osotasunean hauteman eta garatzeko bidea irekiko dion ingurunearen gakoak plazaratu. Hala, Finlandiako, Kataluniako nahiz Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan da.

Bestalde, duela bi urte Francesco Tonucci pedagogo eta "Haurren hiria" egitasmoaren sortzailearekin hasitako bideari jarraipena eman nahi izan zaio jardunaldiarekin. Hala, haur eta nerabeen aisialdi parte-hartzailea sustatzeko bost liburuxka argitaratu dira eta herri hezitzaileen sarea sortu eta ezagutarazi da.

G



Herri Hezitzailea sareako kideek OinHerri ekimena sortu dute; jardunaldiaren amaieran agertokian elkartu ziren guztiak.

"Munduan ez daude bi pertsona berdin, eta, gainera, egunetik egunera ezberdinak gara", hala mintzatu zen Koldo Saratxaga Hik Hasi-k bere 20. urteurrenaren harira, apirilaren 24 eta 25ean Donostiako Kusaalen egin zituen "II. Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldietan. Taldean lan egiteko eta gauregungo gizartearen erronkei erantzuteko aniztasunari tokia egitea ezinbestekoa da enpresariaren esanetan, eta zeregin horretan hezkuntzari berebiziko garrantzia ematen dio.

Horretantxe saiatzen dira, zehazki, Finlandiako eskoletan. Hango hezkuntza ereduaren berri eman zuen Leo Pahkin Finlandiako Hezkuntza Kontseilu Nazionaleko kideak eta hark azaldu bezala, aniztasunaren kudeaketa eta ekitatea dira hango heziketaren bi zutabe nagusiak. Kalitatezko heziketa emateko haur bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen dituzte eta ume bakoitzaren ezaugarri horietatik jartzen dituzte eskolako eguneroko jardunaren erdigunean. Beste horrenbeste egiten dute Kataluniako Ripollet herriko El Martinet ikastetxean ere. Hasi 3 urtetik eta 12ra bitartean proiektuak lan egiten dute, adin guztietako ikasleek nahasian, testulibururik eta irakasgaika banatutako ordutegi hertsirik gabe, haurren gaitasunetan oinarrituz, haien interesetan eta egiten dakiten horretan arreta jarritz, eta bakoitzaren erritmoak errespetatuz. (Informazio gehiagorako, 188. *hik hasi* aldizkarian agertu zen Koldo Saratxagari egindako elkarrizke-

ta; 195. ean El Martineten inguruko erreportajea; eta ekaineko zenbakian azkenik, Leo Pahkinen elkarrizketa argitaratuko da).

Aniztasuna izan da jardunaldia lotu duen hari-muturretako bat, hain zuzen ere: alde batetik, haur guztiak barne hartuko dituen eskolak eta herriak izan beharko lituzketen ezaugarriak bistaratu dira; eta bestetik, haurra bere osotasunean hauteman eta garatzeko bidea irekiko dion ingurunearen gakoak plazaratu. Hala, Finlandiako, Kataluniako nahiz Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan da jardunaldian. Orotara 550 pertsona inguruk hartu dute parte, eta Pahkin zein Saratxagaren hitzaldiak entzuteaz gain, beste hainbat egitasmo ezagutzeko parada ere izan da; hala nola, aniztasuna kudeatzeko Topagunearen harrera plana euskararen ikuspegitik; Gaztematika; Pasaiko Haur eta Nerabeen eskubideak bermatzeko plana; Herrietako ondare kulturala lantzeko programak; Harremonak egitasmoa; edota elkarbizitza eskolan.

Horretaz gain, izenburuak iradoki bezala, duela bi urte Francesco Tonucci pedagogo eta "Haurren hiria" egitasmoaren sortzailearekin hasitako bideari jarraipena eman zaio jardunaldiarekin: batetik, haur eta nerabeen aisialdi parte-hartzailea sustatzeko bost liburuxka argitaratu ditu "Herri hezitzailea, eskola herritarra" taldeak eta horiek aurkeztu dira; bestetik, berriz, herri hezitzaileen sarea sortu eta ezagutarazi da.

Guztiontzako eskola, guztiontzako herria

Haurrak eta gazteak ahaldunduz

“Haurra pertsona da. Ez etorkizuneko, baizik eta gaur egungoa. Umea ez da helduon desioen asebetetzailerik, baizik eta bere helburuak edo nahiak beteiko dituen pertsona osoa”. Lorea Agirre Huhezi-ko Sorgunea ikerketa taldeko kide eta *Jakin* aldizkariko zuzendariak azaldu bezala, premisa horretatik abiatzen dira “Herri hezitzailea, eskola herritarra” taldea osatzen duten eragileak, uneotan OinHerri izenaren pean bazen direnak.

2010ean Oarsoaldean abiatutako proiektu bati jarraiki, 2012an beste forma bat hartu eta jende gehiago integratu zen taldean eta uneotan 14 eragilek osatzen dute: Irrien Lagunen Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pilpilean euskara elkarte, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Urtxintxa Bizkaia Eskola eta Ttakun Kultur Elkarte.

“Herri hezitzailea, eskola herritarra” egitasmoaren oinarria hainbat kontzepturen bidez laburbil daiteke, xedea haurren aisialdi parte-hartzailea, eskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzea baita. Zazpi hitz horiek harilkatuz egitasmoaren ideia orokorra azaldu zuten Agirrek jardunaldian. **Haurra** hitzarekin abiatuz, umeak herritar eskubidedun eta betebehardun, herritar iritzi eta proposamen egile, erabakiak hartzeko gai, erabaki horiek gauzatzeko anean parte-hartzaile direla adierazi zuten: “Umea pertsona dela esateak



esan nahi du desboteretua boteretzea. Alegia, umea bada gu guztion, betere-tze prozesu baten protagonista izan beharko genukeenon, metafora”. Agirrek esplikaturako eran, haurra **herritarra** da, “guztio herritarrak garelako”. Bere esanetan, herritar izateak elkarlanerako bokazio bat edukitzea esan nahi du, komunitate bati begira jardutea, talde edo komunitate bateko kide izatea. Alegia, “pentsatu, eztabaidatu, adostu, gauzatu, partekatu, alde egin, kontra egin eta ekimen-gune, funtzio-espazio guztietan harremanetan jarri, eta hor sortzen den horretatik herritar gisa indartzea, eta komunitate baten baitan pertsona bezala garatzea”.

Herritar izatea **parte-hartze**arekin zuzenean dago loturik Agirreraren irudiko. Parte-hartzea egiten den bide bat dela adierazi zuten, ez dela lehenengotan ateratzen, baina egin ahala gero eta benetakoagoa dela. Eta gaineratu zuten, egiteko modu horrek jakintza modu guztiak berdintasunaren plano-

an onartzen dituela, pertsona guztiek ahalmen eta gaitasun desberdinak izanagatik, balio bera dutela: “Parte-hartzeak eskatzen du entzutea, entzuten ikastea, eta adieraztea, azalpenak ematea, sentitzen den hori adieraztea, eta erabaki guneak konpartitzea, borondatea eta helburuak izatea, eta horregatik espazio publiko guztiak umei —eta horrenbestez, metafora gisa, pertsona guztiei— zabaltea, taldean jardutea eta adostutako konpromisoak betetzea”.

Josi beharreko beste hitz bat **aisialdia** da. Borondatez eta gogoz egiten den hori da aisia, “herri hezitzailea, eskola herritarra” egitasmoaren arabera. Agirrek azaldu bezala, goitik behera egituraturako aisialdia ez da aisialdia, baizik eta aisialdia denbora libre da, denbora askea, denbora galtzea. “Ere- mu askeen beharra dugulako, eremu askeen paradigma aisia izan daitekeela sinesten dugulako. Eskola ere aisia izan litekeela sinesten dugulako eta pentsatzen dugulako”. Eta aisiaren, eskola-

ren, bizitzaren oinarrian jolasa dagoela gaineratu zuen, jolasa baita bizitzaren eskola, umetan zein heldutan.

Aisialdiarekin eta jolas librearekin lotuta, bada beste ezaugarri oso garrantzitsu bat ere “Herri hezitzailea, eskola herritarra” egitasmoaren filosofiaren oinarrian: hain zuzen ere, **haurtzar oaren kultura propioa** bat existitzen dela onartzea. Horrek esan nahi du haurrek euren modu etiko, estetiko eta poetiko propioa dutela mundua ikusteko eta euren bizitzari, existentziari zentzua emateko, hipotesiak egiteko, teoriak eta metaforak eraikitzeko.

Era berean, aisialdiak **hezitzailea** izan behar duela erantsi zuen Agirrek, eta horixe da, hain juxtu, egitasmoa harilkatzen duen beste ezaugarrietako bat. Haren arabera, aisialdiak hezitzailea izan behar du eta guztientzat onak izango diren balio eta ekimen partekatuak bilatu behar ditu: “Mundu juxtuago bat, osasungarriago eta bizigarriago baten beharra bilatzen dugulako, eta behar hori badagoelako, eta horren lorpenean bideak, urratsak, lekuak, espazioak, arnasa hartzeko tokiak ireki behar direlako”.

Azken ezaugarria, baina ez horregatik garrantzi txikiena duena, aisialdia **euskalduna** izatea da. Arrazoi asko eman zituen Agirrek hori defendatzeko: euskara inklusibo dela; hemen eta orain euskara normalizatzea mundu juxtuago bat eraikitzea dela; eta haurrei, alegia, pertsoneri, alegia, desboretuen metafora diren horiei aitortu nahi zaizkien eskubide sozial eta politiko guztiak —herritar direla partaidentzaren eremuetan, erabakietan eta konpromisoetan— euskarari ere aitortu behar zaizkiola; euskal hiztun izatea herritar izateko modu bat baino ez dela. “Ez dugu kapritxorik eskatzen, berdintasuna eta demokrazia baizik”.



Bost liburuxka kalean

Lorea Agirrek “II. Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldian azaldu zuen marko teoria jasotzen duen *Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen* liburuxkaz gain, beste lau liburuxka ere argitaratu ditu OinHerri taldeak: *Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik*, *Nola egin udal-eku parte-hartzaileak*, *Nola egin ludoteka parte-hartzailea* eta *Parkeak bizitzeko modu berriak*. Beroiek aurkezteko ere probestu zuen jardunaldia OinHerri taldeak.

Herri hezitzaileen sarea

Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra marko teorikotik abiatuta, eta tokian tokiko herrigintzak, hezkuntzak eta udalak bat eginik, herri-hezitzaileen sarea sortu dute Euskal Herriko zortzi herriek: Donostiako Egia auzoak, Sorluzek, Arrasatek, Agurainek, Otxandiok, Dimak, Baztanek eta Baigorrik.

Herri horietako bakoitzean “herri

hezitzailea, eskola herritarra” egitasmoa martxan jartzeko eman dituzten pausoak azaldu zituen Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkarteko kide Mirreia Bazek jardunaldian. Bere esanetan, lehen urratsa herria ezagutzea da, bakoitzaren beharrak eta errealitatea ezberdinak direlako, eta gainera, “behetik gora” eraikitako ekimena delako. Bigarren egitekoa da tokian tokiko eragileei eta norbanakoei egitasmoa azaltzea eta hortik talde sustatzaile bat sortzea: “Horretarako, ezinbestekoa da herrigintzaren, hezkuntzaren nahiz udalaren presentzia, proiektuak denboran iraungo badu hiru sektore horiek norabide berean jardutea funtsezkoa baita”.

Izan ere, OinHerri taldeak haute-man duen auzietako bat da, herri askotan parte-hartze prozesu ugari egin direla azken urteetan, baina haurrak eta nerabeak oso gutxitan hartu direla kontuan, edota behintzat, zuzenean ia inoiz ez zaiela iritzia galdetu eta hitza eman.

Herri hezitzaileen hainbat esperientzia

OinHerri-ren nahia da hainbat herritan egiten ari diren praktika onak ikusaraztea eta herri horien arteko saretze-lana egitea. Horrexegatik, jardunaldietan Baztango, Dimako, Arrasateko, Aguraingo eta Soraluzeko ordezkariak izan ziren herri bakoitzeko egitasmoak aurkezten.

BAZTAN: 15 herri txikik osatzen dute Baztan eta bertan auzolana nahiz gobernatze eredu herrikoiak ez zaizkie arrotz. Herri antolatua da eta parte-hartze herritarra eguneroko praktika. Giro horretan, Baztan herri hezitzailea izanen zela erabaki zuten. Nora Salboltx bertako ordezkariak adierazi bezala, “udaberriarekin batera loreak sortzen hasi dira zenbait herritan”: Lekarozen haurren herri-batzarrak egiten hasi dira umeek eurek antola dezaten bes-tetako haurren eguna; Amaiurren badute nerabeendako lokal bat eta hemendik aurrera gazteek eurek eginen dute lokal horren kudeaketa; Berroetan auzolanaren inguruko lan bat egitera doaz; Elizondon haur-parke bat zaharberritu behar dute eta lan horretan haurrak arkitektoarekin batera elkarlanean ariko dira; etab.

DIMA: biztanle gutxi izan arren, hedaduraz handia da Dima. Haur eta gazte asko herrigunetik aparte, auzoetan bizi dira. Eta eskolara herrira bertara joaten diren arren, aisialdian, sarri, behin autoa hartuta, kaxkoan gelditu ordez, inguruko herrietara joan ohi dira. “Arazo bat daukagu, haur eta gazteek eskola dutelako topagune bakar, baina gero aisialdia beste leku batzuetan egiten dutelako”, azaldu zuen Dimako zinegotzi eta irakasle Ibon Izak. Behar horretatik abiatuta, haurrekin nahiz gaztetxoekin parte-hartze prozesuak hasi dituzte eta partaide kopuruarekin nahiz haien balorazio positiboarekin gustura daude oraingoz.

ARRASATE: ikuspegi hezitzailetik elkarrekin Arrasate hobetzeko bidea egiteko “Arrasatek Hezi” proiektua jarri dute abian. Amaia Etxabe proiektuaren arduradunetako batek jardunaldian esplikatu zuenez, Arrasate hobetu gura dute herri-eredu juxtuago baterako bidea egin nahi dutelako eta horretan hezkuntza ardatz hartu nahi dute: “Hezkuntzaren ikuspegi integralaz hitz egin nahi dugu. Eta hori guztia elkarrekin egin nahi dugu. Norbanako eta eragile desberdinak kontuan hartuta, sarea osatuz eta sarean lan eginez”. Irailean abiatu zuten egitasmoa eta orain artean hezkuntzaren inguruko kezka eta beharrak diagnostikatzen aritu dira, errealitatearen lehen argazkia egiteko. Orain, lehen urrats gisa, Arrasateko herri-antolamenduan eragiteari ekingo diote.

AGURAIN: parte-hartze prozesu ugari egin dituzte azken denboran Agurainen, baina hutsune nabarmen bat izan dute, bertako alkate Maider Garciaen arabera: haur eta gazteen parte-hartzea ez dute bultzatu; “beraiantzako lan egin dugu, baina ez beraiekin”. Horrexegatik erabaki dute “Herri hezitzailea, eskola herritarra” egitasmoan parte hartzea eta uneotan haurrei eta gazteei iritzia galdetu eta erabakiak hartzea ahalbidetuko dien prozesuak bultzatzen ari dira. Horren erakusle da, adibidez, Garcia bera eskolako haurrekin elkartu izana haiei Udala zer den azaltzeko, beraientzako ere tresna bat delako eta ezagutu behar zutela iruditu zitzaizolako.

SORALUZE: duela bi urte egin ziren “Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldien ondotik, hainbat aldaketa txertatuz joan dira Soraluzeko Kukumixo aisialdi taldearen filosofian: haur eta gazteei programazio guztia egina eman beharrean, erabakietan parte hartzen eta horiek aurrera eramateko antolaketan parte hartzen hasi dira; oinarri moduan asanblada ipini dute; lau pareten artean atera eta kalea ere jolasleku bilakatu dute; adinak nahastuta jarduten dute; etab. Uneotan, berriz, Maite Quintanilla Kukumixuko kideak adierazi bezala, herri mailako hezkuntza proiektu bat egiten dihardute haurrei eta gazteei ere zuzenean parte-hartzeko bideak eskainiz.

Aniztasuna: ondorioa baino, abiapuntua

Aniztasuna izan dugu herri hezitzailea jardunaldietan aurkeztutako eduki guztien arteko lotura egin duen hari-muturra. Eta, larunbatean, hain zuzen eretarte bat hartu zen ordu arte hainbesteren ahotan ibilitako aniztasuna kontzeptua zer den azaltzeko. Horretarako, EHUko Antropologia irakasle Jone Miren Hernandezek hartu zuen hitza, “aniztasunaren inguruko ideia batzuk zirriborratzen ahalegintzeko”. Izan ere, bere eguneroko jardunaren parte du Hernandezek aniztasuna: alde batetik, irakasle bezala gelara sartzean “aniztasunarekin topo” egiten duelako egunero; eta, bestetik, antropologiaren ikuspegitik landu egiten duelako gaia.

Antropologian aniztasunaren kontzeptua nola ulertzen den azalduz hasi zen Hernandez. Izan ere, jendartearen aniztasuna aberastasun gisa edo arazo moduan har daiteke, ondorio gisa baloratuta beti ere, baina antropologiaren ikuspegitik, aniztasuna abiapuntua da, oinarizko errealitate bat: “Mundua zer-bait bada, anitza da. Kontua da gaur egun presenteago dagoela aniztasuna gure komunitateetan, eta horren aberastasunaz jabetzen hasi garela”.

Dena dela, ez da beti horrela izan, bere esanetan. XV. eta XVI. mendeetan azaleratzen da, batik bat, gizakiaren aniztasuna, eta areagotu egiten da kolonialismoaren ondorioz. “Bestea agertzen da, kultura eta gizaki desberdinak”. Kolonialismoaren aktore nagusi diren europarrentzat, arraroa, harrigarria eta ezezaguna da beste hori, eta arazo bezala hartzen da. Gaur egun, “globalizazioak hartu duen abiaduraren ondorioz”, ageriagokoa da gizakiaren

aniztasuna, eta horren inguruan egiten dugun interpretazioa ere zabaldu egin da, Hernandezen ustez.

Hain zuzen aniztasuna hainbat ikuspegitik landu daitekeelako, tipularen metafora erabili zuen Hernandezek kontzeptua azaltzeko, “geruzaz geruza kontu batzuk argitzeko”. Tipularen lehen geruza, azalekoena, munduarekin parekatu zuen, “non kultur komunitate desberdinak dauden. Eta aniztasun hori gustatzen zaigu, turismoa egiten dugu aniztasun hori ezagutzeko.” Horrela, bestea ezagutzera goaz, eta, lehen bezala, gaur egun ere harridura sortzen du besteak eta bestearen ohiturek. “Harridura sortzen digute, baina horrela ere ez dugu lortzen geureaz hausnartzea. Besteak gauzak modu batera egiteak harritzen gaitu, baina ez diogu geure buruari galdetzen geuk zergatik egiten ditugun gauzak modu jakin batean.” Kultura hain zu-

zen arazo edo egoera bati erantzuteko modua litzateke, beste hainbat gauzaren artean, eta, beraz, egoera jakin baten aurrean konponbide berriak bilatzeko aukera izan daiteke bestearena ezagutzera, Hernandezen arabera. Era berean, “kultura bakoitzak bere konponbideak aurkitu ditu egoera edo arazo jakinei erantzuteko, eta egoera horiek aldatzen doazen heinean, baita horiei emandako konponbideak ere. Malguta da, beraz, kultura”.

Bestalde, “beste nonbaitetik etorritako norbait ikusten dugunean, kultura ikusten dugu, desberdintasuna, baina gehiago kostatzen zaigu ikustea, adibidez, pertsona hori bere herria uztera bultzatu duten arrazoi ekonomikoak. Esan bezala, kultura ikusten dugu, desberdintasuna, eta askotan aurreiritziak horretan daude oinarrituta, kulturaren desberdintasun horretan”. Gainera, he-dabideek ere aurreiritzi horiek sakontzen “trasmisio-lana” egiten dutela uste du: “Harresiak ikusten ditugu, eta pertsonak harresi horietatik jauzi egin nahian”. Eta, irudi horien errepikaperearen ondorioz, aniztasuna harresiekin, pertsonekin eta arazoekin lotzen dugula uste du.

Tipularen bigarren geruzara etorrita, Mendebaldeko kulturarekin edo Europarekin identifikatzen du Hernandezek. Pertsona bat edo komunitate bat bere gunetik kanpora ateratzen bada, egoera edo arazo jakinentzako konponbide bila ateratzen da, Hernandezen esanetan; baina, Europarren kasuan, kanpora ateratzen direnean, XV. eta XVI. mende horietan hain zuzen,



Jone Miren Hernandez antropologoa.

Guztiontzako eskola

“nahiko modu bortitzean egiten dute”, kolonialismoari erreferentzia eginez. Paradoxikoa deritzo Hernandezek, hain zuzen Europaren baitan herritarrentzat askatasuna eta berdintasuna aldarrikatzen hasten diren garaietan, europarrak izatea mundu mailan desberdintasunak sortzen eta areagotzen ari zirenak, sasoi hartan.

Hain zuzen ere, azaldu zuenez kolonialismotik datorkigun joera bat geureganatu dugu aniztasuna kudeatzera-koan: lehenengo, ezarritako normaltasun eredutik (adin ertaineko gizon zuria) kanpo dagoena desberdina da, edo desberdintzat hartzen dugu, hain zuzen izatez aniztasuna besterik ez dagoen tokian desberdintasuna sortuz. Eta, gero, desberdintasun hori mailakatu egiten dugu: desberdin diren horien artean, batzuk besteak baino hobeak iruditzen zaizkigu. Bere ustez, gauza bera gertatzen da ikasgelan ere: desberdinak diren ikasleak mailakatzeko joera dugu, batzuk hobeak bezala sailkatzen ditugu eta besteak txarragoak bezala. Mailaketak egitea Mendebaldeko kulturetan oso erroturiko praktika dela uste du Hernandezek.

Tipularen 3. geruzan herria edo komunitatea kokatu zuen Hernandezek; 2. go geruzan, alegia, Mendebaldeko kulturetan, desberdintasunak sortzeko eta mailakatzeko joera ikusten bazuen, 3. go geruza honetan homogeneousitatearen idealizazio eta guztia berdintzeko joera ikusten zuen. “Gure komunitateetan uste zabaldua da bertako kideak zenbat eta berdinago, homogeneousoago izan, bizikidetzan orduan eta errazagoa izango dela”. Bere ustez, Mendebaldeko estatuek pertsonen homogeneousitate bultzatu dute, gizarte homogeneousoa kudeatzeko errazagoa dekoan, eta hezkuntza horretarako tresna baliosua izan da. Baina, Hernandezen esa-



Arremanitz-eko kideak, Harremonak proiektua aurkezten.

netan, ez da biderik eredugarriena ez baliagarriena, eta Frantziako kasua jarri zuen adibidetzat: bereziki hezkuntzaren bidez herritarren homogeneousitate bultzatu bada ere, bizikidetzan ez dituzte izan esperotako emaitza positiboak. “Hala ere, guk ere barneratuta daukagu identitate bat partekatzea garrantzitsua dela bizikidetzarako. Zenbat eta adostasun zabalagoa egon, orduan eta erosoago sentitzen gara. Desberdintasunak ikaratu egiten gaituzte”. Eta tipularen azken geruzara iritsi zen Hernandez: norbanakora. Puntu honetan, bestearen azalean jartzeko, bestearen bizipenak izaten saiatzeko gomen datu zuen Hernandezek. Izan ere, kultura bada taldeak sortzen duen konponbidea egoera jakinen aurrean, orduan aniztasunetik konponbide asko lor daitezke egoera jakinetarako, bere ustez. Hor, beraz, aniztasunaren aberastasuna.

Tratu onak eta hezkidetzak

Hernandezek eskainitako marko teorikotik lur hartuz, Arremanitz taldeko Asier Baglietok eta Haizea Eigurenek Harremonak proiektua aurkeztu zuten. Ekimen horrek, hain zuzen sexual aniztasuna, parekidetasuna eta tratu onak sustatzea du helburu; osagai bo-

robilak aniztasuna kudeatzeko.

Bilboko Udalarentzat hasi ziren tratu txarren gaia lantzen gaztetxoekin, baina konturatu ziren erresistentzia handiak zeudela, batik bat mutil gaztetxoekin. Orduan, enfokeari buelta bat eman eta, tratu txarrez beharrean, tratu onez mintzatzea erabaki zuten; hortik sortu zen Harremonak proiektua. Egun, udaletan ez ezik hainbat ikastetxetan ere ari dira lanean.

Horietan, Harremonak proiektuaren bidez hezkidetzak dute helburu. Horretarako, pertsona osoak, anitzak eta libreak sortu behar direla uste dute; eta, hori lortu ahal izateko, abiapuntua “geure buruan sinestea da: gutako bakoitza izaki zoragarri dela konturatzea”. Horrekin batera, tratu onak sortzen entrenatzeko beharraz hitz egin zuen Baglietok, eta geure burua eza-gutzeko eta ondo tratatzeko moduetako bat sexualitatea lantzea dela gogorazi.

Bestalde, benetako hezkidetzak, izatekotan, egungo gaztetxo diren belau-naldien eskutik iritsiko dela uste dute, eta horrenbestez, gaztetxo horiek jendartearen erdigunean jartzea proposatu zuten: “Gaztetxoak erdigunean jarri eta hitza eta erabakia eman behar diegu, protagonista egin behar ditugu”. •

Javier Onrubia



ELKARRIZKETA

Psikologia Ebolutiboan eta Hezkuntzan katedraduna

“Aniztasunaren kudeaketa ez da irakasleok ditugun egitekoen artean ekintza bat gehiago, hezkuntza-diseinu egoki baterako abiapuntua baizik”



Ikastolen Elkartearen XXII. Jardunaldi Pedagogikoetan hartu zuen parte Javier Onrubia Goñi Bartzelonako Unibertsitateko Katedradunak Psikologia Ebolutiboan eta Hezkuntzan. "Aniztasunari eta eskola praktikaren hobekuntzari erantzuten" izeneko hitzaldia eman zuen eta 'hik hasi'-k aukera hori baliatu zuen aniztasunaren kudeaketaren gainean aditua elkarriketatzeko. Bere esanetan, hezkuntzak pertsona ingurune konplexuetan funtzionatzeko hezi behar badu, ez dauka zentzurik pertsona batzuek ikasteko balio dutela eta beste batzuek ez dutela balio pentsatzeak: "Ulertu behar dugu guztiok laguntza mota diferenteak behar ditugula ikaskuntza-prozesuko ibilbidea egiteko".

Hezkuntza-arloan, aniztasunaren kudeaketan aditua zara. "Aniztasuna" diozunean, zer sartzen duzu kontzeptu horren barruan?

Askotan, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak etortzen zaizkigu burura "aniztasuna" esatean. Eta irakasleen kezka nagusia ere horixe da maiz. Baina, "aniztasuna" diogunean, "aniztasun" mota guztiez ari gara: genero-aniztasunaz, kultura-aniztasunaz, gizarte-aniztasunaz... Horren guztiaren arabera, pertsona guztiok desberdinak gara, eta era batera edo bestera iristen gara hezkuntzara; beraz, askotariko laguntza motak beharko ditugu ikasteko eta aurrera egiteko.

Azken urteetan, aniztasunaren kudeaketa hezkuntzaren erronka nagusienetarikoa bilakatu da. Eskola gehienek txertatu dute euren proiektuetan "inklusio" kontzeptua. Baina, benetan, zer-nolako arreta ematen zaio aniztasunari?

Aniztasunaren kudeaketa ez da irakasleok ditugun egitekoen arteko beste ekintza bat. Kontua ez da irakasleok eskolak programatzea, gelan ordenari eustea, azterketak prestatzea, ariketak zuzentzea, familiekin harremana izatea eta aniztasuna kudeatzea. Segur aski, horrela transmititu dugu batzuetan, aniztasunaren kudeaketaren esanahia orain arte egin dugunaren elementu osagarria balitz bezala. Nire ustez, ordea, hezkuntza-diseinu egoki baterako abiapuntua da aniztasunaren kudeaketa. Inklusioak izan behar du gaur egungo irakaskuntzaren ardatza, eta argi izan behar dugu hori.

Sarri, baina, molde jakin baten barnean sartzen ez ziren ikasleak bereizi egin dira.

Tradizioz, nolabaiteko uniformetasun baten barnean sartzen ez ziren ikasleak bereizi eta baztertu dituen eredu batetik gatoz. Gure egitekoa da eredu hori eraldatzea. Nahitaezko hezkuntzak pertsona ingurune konplexuetan funtzionatzeko hezi behar duela uste badugu, ez dauka zentzurik pertsona

batzuek ikasteko balio dutela eta beste batzuek ez dutela balio uste izateak. Pentsatu behar dugu guztiok askotariko laguntza motak behar ditugula ikaskuntza-prozesuko ibilbidea egiteko.

Helburuak bete nahi dituen edozein hezkuntza-sistemak aniztasunarekin egingo du topo, eta era askotako pertsonak izango ditu aurrean. Horren ondorioz, irakasleak proposamenak prestatzen dituenean, ezin du buruan ikasle estandar bat soilik izan; aitzitik, oso ikasle talde heterogeneoetan pentsatu behar du. Horrek mentalitatea aldatzea eskatzen du. Izan ere, kalitatezko hezkuntzak ez du esan nahi selektibitatea ikasle askok nota onekin gainditzea, ikasle guztientzat ahalik eta ikaskuntza-esperientzia onenak eskaintzea baizik.

Posible da eskola bat osoki inklusiboa izatea?

Ez dakit, baina horrek ez liguke gehiegi axola behar. Inklusioa hezkuntza-proiektu bat da, baina ez hori bakarrik, proiektu sozial bat ere bada. Nik ahalik eta jende gehienak parte hartzeko aukera duen gizarte bat nahi dut; ahalik eta jende gutxien baztertzeko duen gizarte bat; generoagatik, jatorri sozialagatik, klaseagatik, kulturagatik... jendea bereizten ez duen gizarte bat. Gizarte mota hori gaur-biharretan lortuko dugu? Ez. Baina horregatik borroka egiteari utziko diogu? Ezta ere. Inklusioa jomuga bat da, proiektu bat, bide bat. Sarri esan ohi dugu ezinezkoa dela inklusioa lortzea, baina gizarte hobetzea ezinezkoa dela esatea bezala da hori. Guri ez zaigu axola ezinezkoa den edo ez; benetan inklusioan eta gizarte hobe batean sinesten badugu, saia gaitez hori lortzen.

Aniztasunaren kudeaketan, dena ez dago egiteko; bidea urratuta dago.

Bai, hala da. Nik aldaketaz hitz egiten dudanean, ez dut esan nahi egiten dugun guztia gaizki egiten dugunik; baina, ziur asko, beti daukagu zer hobetua. Horregatik, iruditzen zait egiten dugun horretatik abiatu behar dugula,

gure jardunaren gainean hausnartu eta, hortik hasita, aurrera egiteko.

Azken batean, aniztasunaren kudeaketaz hitz egitea transformazio-prozesuez hitz egitea da; eta, berorien bidez, haur nahiz gazte, gero eta pertsona gehiago izango dira eskoletan nahiz geletan sortzen diren testuinguruetan, eta gero eta gehiagok parte hartu ahal izango dute. Horixe da hezkuntza inklusiboak planteatzen duen erronka eta eskoletan babestu beharreko proiektua.

Tradizionalki, “aniztasun” hitza “zailtasun” hitzari hertsiki lotuta agertu izan da.

Bai, eta horrexegatik da garrantzitsua zailtasunak nola ulertzen ditugun eta aurre nola egiten diegun konturaztea. Sinplifikatuz, eta sinplifikatzeak dakartzan arriskuak neure gain hartuz, zailtasunak –eta, beraz, ikasteko zailtasunak– ulertzeko bi modu nagusi daude. Horietako baten arabera, norbaitek zailtasunen bat duenean, zailtasun hori esplikatzen duten faktoreek pertsona horrekin dute zerikusia: “Gaitasun-arazoak ditu, aurretiko ezagutzak falta zaizkio, ez du interesik, motibazio urria du, estrategia falta zaio...” Azken batean, arazoa pertsonarena da. Hori da zailtasunak ulertzeko modu tradizionala. Horren aurrean, heziketa inklusiboaren ikuspegitik, ikasteko zailtasunen gaineko eredu sozial bat planteatzen dugu. Eredu horrek ere onartzen du pertsonaren ezaugarriek eragina dutela ikaskuntza prozesuan, baina horri baino garrantzia handiagoa ematen dio testuinguruari; testuinguru horrek pertsona guztiei ikasteko bidea irekiko dien ezaugarriak izan behar ditu. Arazoa ez da ikasle batek dakien edo ez, baizik eta testuinguruak hainbat bitarteko eta erreminta eskaintzen ote dizkion ikaskuntza bermatzeko.

Hori horrela izanik, gelako espazioetan ikaskuntzari eta parte-hartzeari mugak ezartzen dizkioten elementuak gutxitzea edo ezabatzea litzateke helburua. Nola lortzen da hori?



Ikasle batek bere ezaugarrien eta jasotzen dituen laguntzen arteko doikuntzaren arabera ikasten du. Ikaslearen ezaugarriak eta testuinguruaren ezaugarriak uztartzearen ondorio da ikasketa-prozesua. Ikuspegi hori kontuan izanik, aniztasunaren kudeaketari eta inklusioari erantzuteko modurik onena hezkuntza-laguntza doitua da. Gakoa ikasleari sostengua eta laguntza ematea da, eta, horrela, ikasle horrek, bere gaitasunekin, egoera batean parte hartu eta ikasi ahal izango du.

“Ikaskuntza egokitu” kontzeptua darabilzu aniztasunaren kudeaketa eta inklusioa gako gisa jartzeko. Zeri deitzen diozu “ikaskuntza egokitu”?

Bi elementu izan behar dira kon-

tuan ikaskuntza egokitua kontzeptuak zer esan nahi duen ulertzeko. Batetik, irakaskuntzaren oinarritzko helburuak berberak dira ikasle guztientzat. Hortaz, ikasle batek munduko arazorik larrienak izan arren, xedeak ezin dira aldatu. Bestetik, helburu horiek oso esperientzia eta ibilbide desberdinen bidez lor daitezke, hau da, oso bide desberdinetatik irits gaitezke jomuga berberera. Hortaz, ikaskuntza egokituan, irakasteko era moldatzen da ikaslearengana eta ez ikaslea irakasteko modura.

Zein testuinguru mota sor daitezke, ikasle bakoitzak berarentzat egokiena den ibilbidea egiten dezan?

Testuinguru batzuetan, errazagoa

javier onrubia goñi



E

“**Sarri esan ohi dugu inklusioa lortzea ezinezkoa dela, baina hori gizartea hobetzea ezinezkoa dela esatea bezala da**”

“**Arazoa ez da ikasle batek dakien edo ez, baizik eta testuinguruak hainbat bitarteko eta erreminta eskaintzen ote dizkion ikaskuntza bermatzeko**”

da ikaste-ko ibilbide desberdinak egiteko aukera izatea. Gure helburua, beraz, ikaskuntzarako bide desberdinak sortzeko malgutasuna duten espazio eta testuinguruak sortzea da. Aniztasunari erantzun nahi dion eredu orotan, erantzun hori ikaskuntza egokituaren iragazkitik pasatzen ez bada, ikasleak egokitu beharko du irakasteko modura, eta ez alderantziz. “Nik gauzak era honetara egiten ditut, eta egingo dugu modua ikasleak horretara molda daitezen”; ideia horixe dago ohiko estrategien azpian. Nik kontrakoa proposatzen dut: “Nik gauzak honela, horrela eta hala egingo ditut, ahalik eta jende gehienarengana iristeko”. Horrexegatik, irakasteko moduak eta testuinguruak egokitu behar dira ikaslearengana, ez irakaskuntzaren helburuak edota edukiak.

Bestalde, testuinguruak dibertsifikatu eta malgutu behar dira, bereziki hiruro esparrutan: eskolako jardueretan eta lanetan; ikasleak gelan jokatzen dituen roletan, eta ikasleek gelan besteekin dituzten harremanetan. Eta egokitzea ez da murriztea. Askotan, egokitzea eduki hau kentzea edota beste hura murriztea dela ulertzen dugu, edo antzekoren zerbait. Baina estrategia ez da edukiak gutxitzea edo erraztea, baizik eta laguntza handitzea, aberastea eta ikaskuntza egoera egokiak ugaritzea. Horretarako, irakaskuntza tradizionalako idatzi gabeko lege bat hautsi beharko dugu segur aski: ezin dugu jarraitu denok gauza bera aldi berean egiten. Curriculum bakar batek ere ez du horrelakorik esaten, baina gela gehienetan indarrean dagoen praktikaren parte da.

Gaur egun, aniztasunaren kudeaketarekin loturiko auzirik gehienak ikasi nahi ez duten ikasleekin loturikoak direla diozu.

Ikasle askok ez dute ikasi nahi guk eskaintzen dizkiegun testuinguruetan. Arazoa ez da ezin dutela ikasi, baizik eta ez dutela nahi. Hori hainbat arrazoigatik gertatzen da. Batzuetan, sekulako arrakala sumatzen dute eskola barnean jarduteko eta jokatzeke moduaren eta eskolaz kanpokoaren artean. Beste batzuetan, berriz, eskolan proposatzen zaien jokoan parte hartzea erabakitzen dute ikasleek, nahiz eta interesik ez izan han eskaintzen zaien horretan, badakitelako trukean nota jakin bat jasoko dutela edo gerora ikasketa zehatz batzuk edo beste batzuk egiteko atea irekiko zaiela.

Ikasleek motibazio falta dute, hortaz.

Hori hala izanik ere, gauza bat argitu nahi dut: irakasleek ikasleak motibatu behar dituztela dioen teoriaren aurka nago. Ikasleek motiboak sobera dituzte. Eta guk ez daukagu haiek motibatu beharrik. Izan ere, gaur egun motibatzeak esan nahi du zerbait desatsegina proposatu behar diegula eta proposatutako hori ikasleek “irenstea” nahi dugula. Eta gakoa ez da hori; aitzitik, gure egitekoa parte hartzeko eta esperimentatzeko erakargarri gertatzen zaizkien espazioak sortzea da, euren bizipenetatik gertu dauden jarduerak planteatzea eta haien zentzua izango duten zereginak proposatzea. Horiek dira gakoak, eta, kasu horretan, eurak bakarrik motibatuko dira.

Aniztasunaren kudeaketa eguneroko jardunaren erdigunean jartzeko erabakia hartzeko orduan, zein paper jokatzen du zentroak?

Zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeak antsietate eta larritasun handia eragiten du sarri. Izan ere, askotan, ezin duzu, kostatzen zaizu, nahi duzu baina ez daukazu erremintarik... Hori lan-keta indibidual bat balitz bezala ikusteari uzten diozun eta eginkizun kolektibo bat dela konturatzen zarenean,



zailtasun horiei beste era batera aurre egiteko gai zarela konturatzen zara, eta ezina ez da horrenbesterainokoa. Hortaz, zentroaren eta kolektiboaren funtzioa oso garrantzi handikoa da. Gainera, nire ikuspegitik, aniztasunari erantzun inklusiboa eman ahal izateko, ikasgelaren ingurunea da gakoa; eta gelak eskolako sistemaren parte dira, eta horrelako ikuspegiarik eta babes orokorrik izan gabe, horrelako aldaketek ez dute aurrera egiten normalean.

Maila aniztetan lan egiten duen “egiazko” ikasgela da zure ustez aniztasunaren kudeaketarako egokiena. Zehaztu dezakezu?

Horrek esan nahi du era askotako ikasleei, guztiei batera, bakoitzari bere mailan ikasteko aukera eskainiko dien ikasbideak diseinatu behar ditugula. Hori da oinarritzko ideia eta ez da erraza, baina ezta ezinezkoa ere. Etxeko eremuari dagokion adibide bat jarriko dut: demagun hiru ume ditudala—2 urtekoa, 4 urtekoa eta 10 urtekoa—. Hiru seme-alaba horiek nirekin batera mahaia jartzen parte hartu dezakete? Ba al dago horretarako inolako arazorik? Ez, ezta? Ba berdin egin dezakegu ikasgelan. “Mahaia jartzea” ekintza erreala da, haurarentzako esanguratsua da eta zentzua du, eta gainera, hainbat ekin-

tzaren bidez parte hartu dezake horretan.

Beste autore batzuek ikasgela “ikaskuntzarako diseinu unibertsalean” oinarrituz antolatzea proposatzen dute. Arkitekturaren diseinu unibertsalaren filosofia berbera du hezkuntzarako egindako proposamen horrek ere. Eraikin bat diseinatu behar dugunean, hasieratik erabaki dezakegu eskailerak egin edota maldak jarri. Bigarren aukerak zein onura ditu? Malda horrek bidea erraztuko dio gurpildun aulkian doanari, baina, horrez gainera, erosketetako karroarekin doanarentzat, nahiz bastoiarekin ibili behar duen helduarentzat, zein eskailerak igo ezin dituen haurarentzat ere abantaila izango da. Hau da, aukera horrekin ez dira aterako irabazten ustez egokitzapenak behar dituzten haiek soilik, baizik eta eraikin horretan ibilbi behar duten pertsona guztiak. Horrek, baina, eraikinaren hasierako ideia aldatzea dakar. Eta beste gauza oso inportante bat ere ahalbidetzen du: diseinua malgutzen badut, gerora askoz ere egokitzapen espezifikoki gutxiago egin beharko ditut.

Baina, tradizioz, kontrara jokatu dugu, ezta?

Zailtasunak dituzten ikasleentzat, tradizioz handiena duen erantzuna

zera da: “Mailarik ematen ez duena, kanpora”. Kasu horretan amaitu dira zailtasunak eta amaitu dira aniztasunaren kudeaketak: Gela horretan egoteko nahikoa baldintza betetzen ez dituzten ikasleak baztertu egiten dira. “Ikasle honek ez luke gela honetan egon behar”, oso maiz entzun izan dugun esaldia da. Baina nire galdera zera da: Gela horretan egon behar ez badu non egon behar du, bada?

Zailtasunak dituzten ikasleekin tradizioz hartu izan den beste neurri bat haurrak taldeka banatzea izan da, errendimendu mailaren arabera. Bistakoa da horrek ere hezkuntza inklusibotik gutxi duela. Beste aukera bat izan da zailtasun handienak dituztenak gelatik ateratzea eta beste gela batera eramatea beste irakasle batekin, bereiztuta, ohiko ikasgelan egiten diren antzeko jarduerak egiteko. Eta egokitzapen indibidualak ere, tradizioan, maiz erabili izan dira: “Gaia dena da, edukiak direnak dira, dauden jarduerak daude... eta zuri, iristen ez zarenez, gauza batzuk kenduko dizkizut edo beste batzuk erraztu”. Guk hori guztia iraultzea proposatzen dugu maila aniztetan lan egiteko aukera ematen duen “egiazko” ikasgelaren ideiarekin.

Zein ezaugarri ditu ikasgela mota horrek?

Kontuan izan behar dugun lehen ezaugarria da ikasleek egiazko jardueretan parte hartuz ikasten dutela, hau da, maila pertsonalean nahiz sozialean euren helbururen bat betetzen den kasu haietan ikasten dutela. Adibide batzuk jartzearren, ikasleek idazten badute, norbaitentzat idatzi behar dute; ikasleek emaitza batzuk aurkezten badituzte, testuingururen batean aurkeztu behar dituzte; ikasleek komunikatu behar baldin badute, egiazko norbaitekin komunikatu behar dute... Hortaz, eskain diezaizkiegun ikasleei zentzu apur bat gehiago duten jarduerak.

Zentzua kontzeptuak sekulako garrantzia du. Izan ere, horrek kontuan izan beharreko beste ezaugarri batera garamatza: etengabe erlazioak bilatze-

javier onrubia goñi



E

“Ikaskuntza egokituan irakasteko modua moldatzen da ikaslera, eta ez ikaslea irakasteko modura”

“Ezin dugu jarraitu denok gauza bera aldi berean egiten; inolako curriculum-ek ez du horrelakorik esaten, baina gela gehienetan indarrean dagoen praktika da”

ra eskolani-kasten denaren eta bizitza errearen artean. Funtsezko galderari erantzuten diote ikasleek: “Zer zerikusiri dauka eskolan egiten dudanak nire bizitzarekin?”. Batak bestearekin zerikusirik ez duela ondorioztatzen badiu ikasleak, horrek ez diola ezertarako balio sentituko du eta eskolan parte hartzeari utziko dio.

Horrez gain, ikasleek jarduera komun batean, maila ezberdinetan, parte hartu dezaten ikasgela konplexuagoak behar ditugu, zarata handiagokoak, askoz ere ordena gutxiagokoak, malguagoak, aukera gehiago eskaintzen dituztenak... Eta hori ez dago gaur egun egiten diren hainbat praktikatatik urruti: proiektukako funtzionamendua, tailerrak, txokoak, ikerketa-jarduerak... Hori guztia tradizio pedagogiko eta didaktikoan oso txertatuta dago eta badiu urte batzuk. Beraz, ez da hain ezinezkoa ere.

Zein beste ezaugarri izan behar ditu irakasleak kontuan?

Informazioa aurkezteko era askotako moduak erabili behar ditu, ez soilik ikas- edoeta irakas- prozesuan, baita ebaluazioan ere. Ikasleari bere prozesuan zehar lagun egitearen ideia ere garrantzitsua da; baita ikasleekiko hartu-emanen errespetuz jokatzeko eta ikasleei kontrola ematea ere. Ikasleekin, talde heterogeneoetan —anitz eta malgua— lan egin behar dugu: ikasle ezberdinek momentu ezberdinetan bata bestearekin lan egin dezatela, rol desberdinak espermentatuz. Gainontzean ikasle iritsi berriak ikasle etorri berriekin taldekatuko ditugu, ikasle

dizdiratsuekin... eta, horrela, eskolaz kanpoko desberdintasunak errepikatuko ditugu gela barnean ere. Ikasle bakoitzaren indarguneak kontuan hartzea, baloratzea eta indartzea ere garrantzitsua da. Ikasle guztiei maila altuko pentsamendu unitateetara iritsi daitezkeen laguntza eman behar zaie, izan ere, behar bereziak dituzten ikasleentzako irakaskuntzan oso errotua dago ikasle horiek oinarriko elementuetara bakarrik hel daitezkeela pentsatzea, baina hori ez da horrela. Kontua da gogorago pentsamendu maila iristeko zein laguntza mota jasotzen duten: ikasle guztiek egin behar lituzkete analisisiko jarduerak, edota sintesikoak edota juiziozkoak eta baloraziozkoak. Gertatzen da, ordea, batzuek laguntza handiagoa behar izaten dutela beste batzuek baino. Gainera, ikasleekin etengabe hausnartu behar da haien ikaskuntza-prozesuaren eta emaitzen gainean, eta ebaluazioak kontuan hartu behar du ikasleentzako esfortzua eta garapena.

Ezaugarri horietako asko dagoeneko eskola ugaritan kontuan izaten dituzte.

Bai, egia da, eta ziur asko ezaugarri horietako bakoitza bera bakarrik hartuta ez da oso originala izango. Nire ustez, guztiak batera ikustean hartzen dute balioa, hala gure ikasgelaren ikuspegi orokor egokia izango baitugu. Egun batetik bestera gure eskolak ezaugarri horiek guztiak izatea lortuko dugu? Ez dakit eta ez zait inporta, baina lortzen badugu gure ikasgela ezaugarri horietako batean hobea izatea, jada aurrera egin dugu. Deskribatu dugun testuinguru horretan inork egokitzapen indibidualik behar ez izatea lortuko dugu? Ez, eta plangintza pertsonalizatuak beharrezkoak izaten jarraituko dute.

Hortaz, era guztietara ere, plan pertsonalizatuak beharrezkoak izango dira.

Bai, baina horrek irakaskuntza pertsonalizatu eta indibidualizatuarekin du zerikusia. Ez du esan nahi pertsona horrentzat curriculum alternatibo bat



egingo dugunik eta, besteak ohiko jarduerak egiten ari diren bitartean, bera-
rentzat beste zerbait prestatuko dugu-
nik. Baizik eta testuinguruaren eta pro-
posatzen ari naizen jardueraren ezau-
garriak aztertzea, eta egoera horretan
pertsona horrentzat oinarritzkoena de-
na aukeratzea eta lehenestea esan nahi
du. Hortaz, ikuspegi erabat desberdina
ari gara planteatzen.

Gela berean bi irakasle batera aritzearen aldekoa zara. Zein aukera eskaintzen ditu irakaskuntza partekatuak?

Esan dugun guztia egingarria izan
dadin oso bitarteko indartsua izan dai-
teke bi irakasle batera jardutea. Maila
askotako irakaskuntza eta irakaskun-
tza partekatua elkar elikatzen dira. Zer
esan nahi du horrek? Maila askotan egi-
ten diren jarduerak hobeto aterako di-
rela gelan irakasle bat baino gehiago
badaude. Eta era berean, irakaskuntza
partekatua hobea izango da, maila as-
kotan jarduteko aukera ematen duten
ariketa horiek egiten badituz.

Ikasgelan eta eskolan inklusioa bermatzeko, armoniari ere berebiziko garrantzia ematen diozu.

“Armonia” diodanean balio parte-
katuak izateaz ari naiz, hau da, ikasgela
balio berberak dituzten pertsonen ko-
munitate bilakatzeaz. Aniztasunaren
kudeaketa egokia izan dadin funtsez-
koa da armonia. Zer gertatzen da asko-

tan? Aniztasunari erantzuteko ikastetxe
askotan dauden baliabideek estigma
eragiten dutela. Ikasleek ez dute erre-
fortzuko gelara joan nahi. Zergatik? Sei-
nalatuta daudelako. Normala da, nik
ere ez nuke joan nahi. Kontua da ohiko
hainbat ideia eta balio indartzea: gela-
kide guztiok sinetsi behar dugu erratze-
agatik ez dela ezer gertatzen, galdetze-
agatik ez dela ezer gertatzen, zenbait
jarduera aldamenekoak baino motela-
goegiteagatik ez dela ezer gertatzen, al-
bokoarekin alderatuta gaitasun dife-
renteak edukitzeagatik ez dela ezer
gertatzen...

Inklusiorako proposatzen duzun ibilbideak ez dirudi samurra.

Behetik hasita, hau da, praktikatik
hasita aldatu behar dira gauzak eta hori

ez da erraza. Praktika aldatzeak ez du
esan nahi gelan erabiltzen dudak tekni-
ka bat aldatzea, baizik eta ni neu alda-
tzea esan nahi du, hau da, irakaslearen
identitatea aldatzea. Eta horretarako,
edo oso konbentzituta egon behar dut,
edo izugarritzko ezina sentitu behar
dut. Izan ere, aldaketa horrek politikak
aldatzea eskatzen du, kulturak alda-
tzea, ikuspegiak aldatzea, ideiak alda-
tzea... eta hori oso konplexua da.

Psikologiaren arloan nagusitzen
den ideia da pentsatzea bakoitza den
bezalakoa dela. Eta bakoitza dagokion
lekuan dagoela. Eta psikologok esan
izan ohi dugu “zu lotsatia zara, zu
bihozbera zara, zu berekoa zara, zu
bizkorra zara...”. Baina azken ikerke-
tek erakusten dute hori ez dela horrela.
Pertsona bat era askotakoa izan daiteke
bizi duen momentuaren eta dagoen in-
gurunean arabera eta hori kontuan iza-
tea oso inportantea da.

Aldaketarako zein da gakoa?

Aldaketa prozesuak gerta daitezen
jendeak errekonozitua sentitu behar
du, eta parte hartzeko eta ekarpenak
egiteko gauza. Gainera, kontuan izan
behar dugu ikasleak anitzak diren mo-
duan, zentroak eta irakasleak ere hala-
xe direla. Hortaz, apustuak zein izan
behar du? Egin daitekeen aldaketa egi-
tea. Eta aldaketa hori askotan mikroal-
daketa izango da. Baina aldaketarik txi-
kiena ere garrantzitsua da. •





LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

Mikel Ormazabal, Kristau Eskolako zuzendaria: LOMCE eta aniztasuna

“Aniztasunarekiko arreta proposamen zaharragoetara eta bereizketa eragiten dutenetara bideratzen du LOMCEk”

Hiztegi bat hartu eta aniztasunaren esanahia begiratzen badugu, bi adiera nagusi aurki ditzakegu RAEren arabera: ugaritasuna, ezberdintasuna; eta, oparotasuna, gauza ugariaren kantitate handia.

Pertsona bati arreta ipintzen badiogu ohartuko gara gauzak egiterakoan ez duela beti ilusio bera izaten eta politika, erlijio, kultura, gizarte eta abarren inguruko gaietan iritziz alda dezakeela. Hortaz, “aldatu egiten gara” edo “ezberdinak gara” une eta egoeren arabera, eta “ugaritasun” hori “oso oparo” eta “abertasuna” izan daiteke pertsona bakoitzaren arabera. Era berean, giza taldeetan aniztasun hori nabariagoa da, izan ere, pertsona bakoitza ezberdina da, eta bitxia dirudien arren, ezberdintasun horrek oinarri biologiko komun zabala du. Gainera, ikastetxeetara begiratu gero ez dugu zalantzarik izango horietan aniztasun, ugaritasun eta pertsonen arteko ezberdintasun asko daudela, eta ezberdintasun horrek aukera ugari eta aberastasuna eskaintzen dio Hezkuntza Komunitate osoari.



Landareen pistilo hodian landarea beraren polena beharrezko galarazten duten proteina batzuk aurkitzen dira eta, horrenbestez, polena bertakoa dela hautematen dutenean “zelulen heriotza” izenekoa gertatzen da autopolinizazioa saihesteko.

Beraz, laburbiltzeko esan daiteke

aniztasuna ez dela ez ona ez txarra, baizik eta gizakiarekin egiaztatutako errealitatea. Ikuspuntu horretatik, ez du merezi “aniztasunaren trataera” lantzea, bai ordea pertsonak eta gizarteak garatzeko hortaz baliatzen jakitea. Are gehiago, aniztasunean ez da soilik zenbat “bultzatu eta sustatu” behar den landu” behar, horrek pertsona eta gizarte bakoitza den bezalakoa, egiazkoagoa eta onuragarriagoa, izatea ahalbidertzen baitu.

Azken urteetako legeak aztertzen hasiz gero, LOGSE (1990) legea dugu lehenengoa eta, bertan xedatzen den bezalako, bigarren artikuluan jada aniztasunaren inguruko ideia orokor batzuen arabeko plangintza bat egiten du: gizon eta emakumeen arteko eskubideberdintasuna, era guztietako diskriminazioaren gaitzespena eta kultura guztiekiko errespetua (2§2 artikulua). Seigarren artikuluan ideia orokor hori zehazten du: oinarriko irakaskuntzan zehar hezkuntza komuna bermatuko da ikasle guztientzat. Hala ere, azken urteetan edukien aniztasun egokia eza-

riko da (6§1 artikulua). Horrela, ulermenaren bidezko hezkuntza izenekoa sortu zen.

Ikuspegi horren barruan bi atal azpimarratu behar ditugu: **ulermenaren bidezko hezkuntza** (“hezkuntza komuna” ikasle guztientzat) eta **aniztasunarekiko arreta eta ebaluazioaren arteko harremana**, ebaluazioaren emaitzak detektatzen direnean pentsatzen baita horretan. Zoritzarrez, egoera batzuetan ebaluazioa amaieran egiten denez, egiatan ez zaio arreta egokia ematen.

ELO (2006) da aniztasunaren trataera modu zehatzagoan lantzen duen lehen legea. Hitzaurrean jada legea beraren bigarren printzipio gisa hartzen du:

“Beharrezkoa da, beraz, ikasleen aniztasunari erantzutea eta aniztasun horrek sortutako erronkei eta zailtasunei aurre egiten laguntzea. Azken batean, ikastetxe guztiek (titulartasun publikoa duten ikastetxeek zein itunpeko ikastetxe pribatuek) hezkuntzarekiko gizarte-konpromisoa beren gain hartu eta bazterketarik gabeko eskolatzea eskaini behar dute.”

Hitzaurre berean ere gaia modu sakonagoan zehazten du: “Aniztasunarako arreta oinarritzko irakaskuntza osoa zuzendu behar duen funtsezko printzipio gisa ezartzen da, ikasle guztiei beren ezaugarrietara eta premietara egokitutako hezkuntza eskaintzeko”. Ulermenaren bidezko hezkuntzari dagokionez, ELO eta LOGSEren arteko lehen ezberdintasuna ikus daiteke: kontua ez da ikasle guztiei hezkuntza bera ematea, baizik eta ikasle bakoitzaren errealitatearekin bat datorren hezkuntza eskaintzea. Hala ere, aniztasunarekiko arreta soilik “egoera ematen denean” lantzeko ikuspuntuarekin jarraitzen du, hau da, ebaluazioaren datuak eduki ondoren. Gainera, II. tituluan hezkuntzan berdintasuna zaintzeko planteamendua egiten du.

Nahiz eta horrek funtsezko hobekuntza bat ekarri —barharrezkotzat hartzen baitu hezkuntza komuna aniztasu-

nari erantzuteko modu egokiarekin lotzea— aniztasunarekiko arreta ez da hasierako planteamendu bat bezala azaltzen (planifikazioari, helburuei eta metodologiari lotuagoa), ebaluazioaren ondorengoa baizik.

Sarrerari amaiera emateko, beharrezkoa da hezkuntza inklusiboaz hitz egitea, pertsonen eskubideekin errespetu handiagoa duen aniztasuna lantzeko proposamen gisa. Ideia hori honela definitu zuen Ramon Flecha adituak: haur guztiei behar adina ematea inork bere heziketan atzera egin ez dezan (2013). Planteamendu horren arabera, aniztasuna aukera bat da ikasle guztiek ikastaldia ahalik eta gehien garatzeko, hau da, **haur guztien gaitasun guztiak ahalik eta gehien garatzeko**.

Aniztasuna LOMCE legearen arabera

LOMCE (2012) legeak aurretik aipatutako printzipio guztiak hausten ditu eta aniztasunarekiko arreta proposamen zaharragoetara eta bereizketa eragiten dutenetara bideratzen du: “Ikasle guztiek dutelarentu, baina bakoitzaren talentua desberdina da. Ondorioz, hezkuntza-sistemak talentu hori antzeman eta indartzeko behar diren mekanismoak izan behar ditu. Ikasleen trebetasun eta itxaropenak anitzak direla aitortzea da lehen urratsa ibilbide ugari aintzat hartzen dituen hezkuntza-egitura bat garatzeko”; eta lerro batzuk beharago aniztasunaren oinarria lantzen du: “Hezkuntzari etekina ateratzeko arazok dituzten ikasleek programa espezifikoak behar dituzte sisteman jarraitzeko dituzten aukerak hobetzeko”. Beraz, onarpenaren eta aniztasunaren sustapena bultzatu beharrean, arazo gehien dituzten ikasleak beste ikaskideengandik bereiztea xedatzen du, eta ondorioz, aniztasunerako eta ikasleek elkarrengandik ikasteko aukera galarazten du. Bitxia eta nolabait iskanbilatsua da “aniztasunaren gestioaz” hitz egitea, hau da, hezkuntza homogeneizatzaileaz eta berdintzaileaz, bidezkoaz hitz

egin beharrean.

Horrez gain, Gobernu zentralaren esku utzi ditu irakasgai ezberdinetan ageri behar diren edukien ezarpena. Ez da gaitasunez hitz egiten, baizik eta edukiez, egoera askotan horiek izanik ikasleen irakastaldiaren benetako oztopo arkitektonikoak.

Beste alde batetik, derrigorrezko hezkuntzako laugarren mailan, ikasleen emaitzen eta etorkizunean ikasten jarraitzeko aukeren arabera bi bide ezartzen ditu. Aniztasunarekiko arretaren aurkako eraso osatu da, hamabost urterekin ikasleak ofizialki etiketatzen baitira.

Laburbilduz, aniztasunari erantzuteko proposamenak LOGSEren ulermenaren bidezko hezkuntzarekiko atzerapauso bat dakar, eta inklusioa edo hezkuntza inklusiboa hitzak lau aldiz agertzen diren arren ez ditu ideia horien printzipioak errespetatzen: gaitasun guztiak pertsona guztiek garatzea ikastaldirako ingurugiro anitz eta inklusiboetan. Jakina ustezko aniztasunarekiko arreta ebaluazioarekin eta ikasleen emaitzekin lotzen ditu, 79 bis artikuluan adierazten den bezala.

Dena den, uste dugu lege horrek ezin duela benetako hezkuntza inklusiboaren alde egin dugun apustua galarrazi, izan ere, horren aldeko apustuak ere emaitzen hobekuntzarekiko konpromiso bat dakar, LOMCEren helburu dena.

112 bis artikulua aniztasunarekiko arreta inklusiboaren esparruan egin dugun proposamenak euskarri legala baduela: “Kalitatezko hezkuntza-proiektuak ikastetxeak espezializatzea ekarriko du, eta, besteak beste, honako hauei buruzko jarduerak jaso ahal izango dira proiektu horretan: curriculum espezializatzea, bikaintasuna lortzea, irakasleak prestatzea, eskola-errendimendua hobetzea, nola hartu hezkuntza-laguntzen berariazko premiak dituzten ikasleen arreta eta plataforma digital partekatuetarako baliabide di-

daktikoen ekarpenak”.

Kristau Eskolaren jarrera

Kristau Eskolak identitatezko hautabide hartu eta uste osoa du gero eta ugariagoak diren hezkuntza ingurugiroetan ikasle guztiei ahalik eta gehien garatzea ahalbidetzen dieten benetako hezkuntza inklusiboaren aldeko apustua egiteari dagokionez.

Aldi berean, hezkuntza inklusiboak hezkuntzaren inguruko ikerkuntza zientifikoaren eta ikasle ikastaldiko emaitzen babesa duela uste dugu.

Ezin dugu esan gure ikastetxeetan egiten den lan guztia erabat inklusiboa denik, hezkuntza inklusiboa ez baita ezer edo guztia hartzen duen kontzeptu manikeo bat. Bide bat da, hots, hezkuntza inklusibo horrekin duen konpromiso zuzen baterako prozesua.

Gure ustetan, hezkuntza inklusiboak oinarrizko eta berezko lau ezaugarri hauek ditu:

- **Ingurugiro anitzak.** Ez dizkiegu gure hezkuntza komunitateko parte izan nahi duten ikasle guztiei ikastetxe-etako ateak itxi nahi eta, gainera, aniztasun hori onuragarria dela uste dugu bertako pertsona guztientzat.

- **Benetan inklusiboak diren plangintza eta metodologia.** Dese-gokia iruditzen zaigu aniztasunarekiko arreta irakasleen programazioa egin aurretik gauzatzea; “porrota planifikatzen” ari garela dirudi, denek arrakasta lortuko ez dutela jakinda gauzatzen baita. Aniztasunari erantzuteko gauzatu dugun proposamena denen garapen osoa ahalbideratzen duten helburu eta jardueren planifikazioarekin hasten da. Hezkuntza inklusiboa ez dugu ebaluazioaren erantzun gisa hartzen, baizik eta ikasleek euren lekua aurkitzea eta arrakasta lortzea errazten duten metodologiek lotzen dugu. Beharrezkoa da jarrera baikorra edukitzea eta ikasle egiatako gaitasunetatik abiatzea. Horretarako, gure begirada bertute edo gaitasunetara bideratu beharko dugu, arreta ahultasunean ipini beharrean. Horren-

bestez, bertute horiek aurkitu, ezagutu, sustatu eta oztupoak gainditzeko lana egin beharko dugu, ikaslearen ahalmen eta garapenari etiketarik edo mugarik jarri gabe.

- **Irakasleen arteko koordinazioa eta hezkuntza eragile guztien parte-hartzea.** Hezkuntza inklusiboak irakasleen artean koherentzia eta koordinazioa edukitzea eskatzen du, baina gainera ikaslea bera xede duten eta familiek era aktiboan eta konstruktiboan parte hartzen duten metodologiak proposatu behar dira. Zentzu horri jarraiki, beharrezkoa iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzaren aholkuak gogoan edukitzea:

“Hezkuntza-jardunean, ikasleek jasotzen duten laguntza banakakoa eta berezia izan ohi da. Eskola inklusiboan, ordea, laguntza kontzeptuak zabalagoa izan behar du; ezinbestekoa da irakasleek eta profesionalak elkarlanean jardutea, ikaskuntza-metodoak ikasle guzti-guztien beharrei erantzutea eta irakasleek prestakuntza jasotzea; izan ere, prestakuntza oso garrantzitsua da hezkuntza-jarduna gero eta inklusiboagoa izan dadin. (Eusko Jaurlaritza, 2012, 18. or.)”

- **Hezkuntza errefortzurako neurri errealean diseinu konprometitua.** Nahiz eta gure plangintza eta metodologiak denen arrakasta lortzea helburu duen, pertsona batzuek lan egiten jarraitu behar izanez gero hezkuntza errefortzurako bi irizpide nagusi adierazten dira: ohiko ikasgeletan egotea galarazten ez duten ordutegietan egitea, eta irakasleek koordinazioarekiko eta norberaren ardura profesionalarekiko benetako konpromisoa hartu ondoren gauzatzea.

Hezkuntza inklusiboari buruzko ikusmolde hori ikasgelako lanean zehazten da eta, bertan, ikaslea bera da bere ikastaldiko protagonista eta helburua. Ikasgelan gauzatzen den lan hori emaitza arrakastatsuak eskaintzen dituzten hezkuntza-jardueren bidez babesten da, arrakastazko metodologi-

bidez baino gehiago. Ideia horrekin adierazi nahi dugu, adibidez, adimen anitzeko metodologiek besterik gabe ez dutela arrakastarik, baizik eta emaitza arrakastatsuak lortzeko horiek gauzatzeko moduen bidez eskuratzen da. Ramon Flechak (2015) dioen bezala, bi ebidentzia oso egiaztatuta daude: emaitzen hobekuntza ez dago erabilitako metodologia aukeren baitan; eta, metodologiaren arteko borrokek eta metodologia aukeren enfasiak emaitzak okertzen dituzte. Proiektuen bidezko ikastaldia (beste edozein metodologia bezala edo *flipped classroom* bezala) oso ongi dago arrakastarako ekintzen bidez egiten bada eta oso gaizki porrotarako ekintzen bidez egiten bada.

Arrakastarako metodologiaren ekintzak garatzeko, hiru baldintza hauek beharrezkoak direla uste dugu: **egiaztatutako ikerketa zientifikotik oinarritzen dira, horien helburua da ikaslea eta ikaslearen errealtate eta bizi esperientziara ahalik eta gehien hurbiltzen dira.** Hirugarren baldintza hori betetzeko, IKTeK aukera oso esanguratsuak eta emankorrak eskaintzen dituzte. Horretarako, beharrezkoa da giza baliabideak (tutoreak eta hezkuntza-laguntzaileak, gainontzeko ikasleak eta familiak) edukitzea, antolatzea eta koordinatzea. Hortaz, ikasgelako lana metodologia malguen eta arrakastatsuen bidez landu ahal izango da eta emankorra izango da haur guztientzat, hain zuzen ere, ahultasun eta desabantaila egoera dauden horiei laguntzeko. Hona hemen Eusko Jaurlaritzak gaiaren inguruan argitaratutako ideia gehiago:

“Ikastetxeetan praktika inklusiboak garatzeko, irakasleek gogoeta bateratua egin beharko dute, eta, ikasgela abiapuntu hartuta, honako oinarrizko hiru alderdi hauek azpimarratuko dituzte: inguru inklusibo batean zerk funtzionatzen duen eta zerk ez aztertu behar da, nola eta zergatik funtzionatzen duen jakin behar dugu; hau da, inklusioa gertatzeko zer baldintza egon be-

har diren jakin behar dugu (Eusko Jaur-laritzak, 2012, 15. or).”

Aniztasunaren arretarekiko dugun proposamena amaitzeko asmoz, HEZIBERRI programa aipatu nahiko genuke eta honela laburbiltzen da bere pedagogia markoan:

“Laburbilduz, hezkuntza inklusiboa ak hauxe esan nahi du: ikasle guztientzat kalitatezko hezkuntza bidezko eta justiziazko bat lortzearen aldeko jokabide eta konpromisoa hartzea. Haur eta gazte guztiekin du zerikusia. Haien parte-hartze errealean ardatzen da, bai eta balioztatutako emaitzen arabera lorpenetan ere, eta bazterketa egoera orori egiten dio aurre, sekula amaitutzat jo ezin daitekeen prozesu bat izateaz batera (Heziberri, 2014:27).”

Aniztasunarekiko arreta inklusiboaren barruan ebaluazioa eta metodologia bereiztea ez dela komeni uste dugun arren, Eusko Jaur-laritzak egindako proposamena egiaztatu hezkuntza inklusibo egokiarekin bat datorrela deritzogu gure ezberdintasun eta espezifikotasunetik begiraturik.

Espezifikotasun horien artean, eta gehiegi sakondu gabe, honako esparru hauen alde egin ditugun aurrerapausoak nabarmendu ditzakegu: Ulermenarako Irakaskuntza, adimen anitzak, irakaspen kooperatiboa, irakaspenerako plataforma digitalak, eskolen artean sareko lankidetzak, hezkuntza-praktika onak partekatzea, irakaspen komunitateen ereduak sakontzea...

Ondorioa

Pere Pujolás (2012) irakasleak oso metafora proposa marraztu zuen aniztasunarekiko arreta egokia definitzeko: denbora asko igaro ondoren, bi lagun aurkitu eta gazteetako beste lagun batzuekin afaltzeko hitzordu bat adosten dute. Eskualdeko berezitasun eta gozotasunez beteriko menu bikain bat prestatu ondoren, afariaren arduraduna konturatu da lagunak ezin duela prestatutako plater askotatik jan. Egoera horren aurrean hiru aukera ditu: lagunari



deitu, egia kontatu eta sentitzen duela baina hurrengo batean berarentzat egokiagoa izango den beste afari bat antolatuko duela kontatzea; edo, prestatutako plateraz gain, lagunarentzat barazki batzuk eta arraia plantzan prestatzea, horrela gutxienez besteekin berriketan aritzeko aukera izango baitu; edo azkenik, prestatutako guztia izozkailuan sartu eta eskualdeko eta urtaroko produktu onenekin denek gozatzeko beste menu bat prestatzea.

Zein da aniztasunaren benetako erantzun inklusiboa? Guztientzat den kalitatezko hezkuntza bermatu behar dugu eta, beraz, argi dago ezin dugula inor gure eskoletatik atera, ezta hasieran zailtasunak dituzten ikasle horiek baztertu edo bereizi ere. Gure erantzun etiko eta profesional bakarra ikasle guztien arrakasta eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzea mesedetzen duen hezkuntza-menu bat eskaintzea da.

Aniztasunarekiko arreta inklusiboaren gakoa ikaslea ikastaldiaren helburu eta protagonista autonomoa egitea dela esan baldin badugu, *sine qua non*

kondizioa gure irakasle eta hezitzaileen profesionaltasuna da. Ezin ditugu gure buruan dauden zenbaki batzuk onartu: eskola-porrotaren datuak; beste eskola batzuetan ikasten jarraitzen duten ikasleen ehunekoa; ikasle eta familia batzuen atsekabe maila; alderdi pertsonalaren, emozionalaren, erlazionalen eta abarren gainetik adimenaren, ahozkoaren edo matematikaren garapen partziala eta nagusia... adibide batzuk esatearren.

Kristau Eskolaren ustez irakasleak dira tresnarik aproposenak hezkuntza inklusiboa garatzeko, eta horregatik, zor diegun begirune pertsonaletik eta onarpenetik abiatzen gara eta prestatutakoren eta profesionaltasunaren aldeko apustua egiten dugu.

Benetako aniztasunarekiko arreta besteen desberdintasunak errespetatzean eta horiengandik, baita ikasleengandik ere, beti ikasteko jarrera irekian datza. Nahitaez jarrera hori pertsona bakoitzarengandik eta aniztasun horri buruz duen balorazio positibotik hasi behar du. •



0-3. Hezitzaileen formazioa

‘Behaketa eta interpretazioa, Loris Malaguzziren bidetik’

Bestearen begiradaren beharra, haurraren portaeran interpretazio objektiboagoa lortu ahal izateko

Zein garrantzitsua den haurraren portaera behatzea eta, ondoren, behatutako hori interpretatzea azaldu die Alfredo Hoyuelosek, NUPeko irakasle eta Iruñeko haur-eskoletako taileristak, martxoko formazio-zikloan parte hartu duten profesionali, Loris Malaguzziren filosofian sakonduz. Eztabaida interesgarria piztu da parte-hartzaileen artean, zalantzak sortu baitira objektiboki behatzeko gaitasunaren eta interpretazioaren mugen inguruan. Hain zuzen, guztion begiradan dagoen subjektibotasuna aitortu, eta interpretazioak taldean partekatzea gonbidatu ditu Hoyuelosek, horrela haurraren portaeraren interpretazio objektiboagoa osatzeko guztien artean.



Alfredo Hoyuelos, formazio-zikloan.

“Nire begirada partziala da, eta ondorioz nire interpretazioa subjektiboa. Bestearen begirada behar dut, bion artean haurren interpretazio objektiboagoa lortzeko”. Loris Malaguzzik landutako ideia hori zabaldu nahi izan zuen ikasleen artean Alfredo Hoyuelosek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle, Iruñeko haur-eskoletako tailerista eta Hik Hasi-ren formazio-zikloko koordinatzaileak,

matxoko formazio-saioan. Hain zuzen ere, “Behaketa eta interpretazioa” izan zuten asteburu horretako gaia, eta bi ariketa horiek egitearen garrantzia azaldu zien: bai bakoitzak bere aldetik, bai taldean. Horretarako, bere lanean sortutako esperientzia errealak partekatu zituen ikasleekin.

Lehenengo eta behin, Iñaki izeneko haur baten egunerokoan oinarri-

tutako dokumentala aurkeztu zien ikasleei. Bertan, unez unez “behatu” zituzten Iñakiren eguneroko urratsak, bai haur-eskolan bai etxean ateratako argazkietan oinarrituta: esnatzen den momentua, eskolara izebarekin doanekoa, ikasgelan beste umeekin jolasean ari denekoa, bazkalordua, komunera joateko momentua bikote pedagogikoko kide bakoitzarekin, etxera bueltan amonarekin elkartzeko denekoa, afa-lordua, oheratzea... Pertsona desberdinekin harremanetan, edo bakarka, Iñakiren eguna osatzen duten ekin-tzak, alegia. Dokumentalaren amaieran, Iñakiren errutinaren parte diren pertsonen galdera bati erantzun behar zioten: nolakoa da Iñaki? Galdera bakar horrentzat hamaika erantzun agertu ziren dokumentalean: “burugorria eta genio bizikoa” da batzuentzat, “alaia eta maitakorra” besteentzat, “alfer samarra” batzuentzat, “oso saiaturia eta gauzei arreta handia eskaintzen diena” besteentzat... Galderari erantzun dion lagun bakoitzeko Iñaki desberdin bat ezagutu dute.

Izan ere, Hoyuelosen esanetan, norbanako bakoitzaren begirada beti da partziala, oinarritua dago pertsona horren usteetan, bizipenetan, jarreretan... Alegia, begirada beti izango da subjektiboa, eta, ondorioz, baita behatutakoaren inguruan egindako interpretazioa ere. Horregatik da Hoyuelosentzat hain garrantzitsua haur-eskoletan bikote pedagogikoka egitea lan: bi begiradaren bidez, haurren argazki osatuagoa egin daiteke, objektiboagoa nolabait.



Formazio-zikloko parte-hartzaileek taldetxotan banatuta egin zuten hainbat ariketa.

Noraino eraman dezakegu interpretazioa?

Behaketa subjektiboaz eta elkarren begiradekin kontakizun objektiboago bat osatzearen garrantziaz jabetzeko, ariketa bat proposatu zien Hoyuelosek formazio-zikloko parte-hartzaileei: Iruñeko haur-eskoletan sortutako ikus-entzunezko laburra eman zuen gelan, *Viaje a ninguna parte* izeneko: Iruñeko haur-eskolako ikasleak eta horien gurasoak, hezitzaileekin batera, txangoa egitera atera dira Iruñetik egun euritsu batean, eta haurrak putzuetan saltoka ibili dira, hezitzaile eta gurasoen begiradapean. Taldetxotan jarrita, behatutakoa interpretatu behar zuen bakoitzak, eta taldekoekin partekatu, interpretazio bakoitza aurrekoaren desberdina izateko baldintzarekin. Taldetxotan landutakoa talde handian partekatzeke unean etorri zen eztabaida, ordea.

Izan ere, zalantzak zituzten formazio-saioko parte-hartzaileek: “Ez al da arriskutsua umearen inguruko interpretazio bat egitea bakoitzaren beldur eta aurreiritzietan oinarrituta?”; “Ez ote da sortuko haurren irudi faltsu bat?”; “Zertarako interpretatu, ez al da hobe bakoitzak beharrikoa ahalik eta modurik objektiboenean azaltzea?”

Hoyuelosek Loris Malaguzziren esperientziatik ateratako ondorioa

aurkeztu zien: nekez lortuko da guztiz objektiboki behatzea haurra, beti sortuko da subjektibotik eta interpretaziotik zerbait. Eta, hori erakusteko, beste ariketa bat proposatu zien: haur baten argazkia erakutsi zien, eta ikusten zutena ahalik eta modurik objektiboenean deskribatzeko eskatu. Ñakiren egunerokorean inguruan egindako ariketan bezala, hemen ere kontakizun bakarrik ez. Deskribapen bakoitzak ñabardura berri bat erakusten zuen, aurrekoak ikusi ez zuena, interpretaziotik ere bazuena; edo beste puntu batean jartzen zuen atenzioa. Ondoren, haur baten negarra entzun, ezer ikusi gabe, eta entzundakoaren deskribapen objektiboa egiteko eskatu zien berriz. Antzekoa gertatu zen, hamaika kontakizun sortu ziren, eta, kasu honetan, nabarmenagoa izan zen deskribapenen karga subjektiboa. Ustez objektiboa dena askotarikoa izan daitekeela erakutsi nahi izan zien Hoyuelosek.

Horregatik, gomendatu zien printzipio etiko gisa hartzeko honakoa: zalantzan jartzea beti behatutakoa eta horren gainean norberak egin duen interpretazioa. Horretarako, eraginkorrena taldean partekatzea dela uste du Hoyuelosek, eta horregatik dela hain garrantzitsua talde pedagogiko-

etan lan egitea. Taileristaren, hezitzaileen, sukaldarien... bakoitzaren begirada subjektiboa konpartituz eta kontrastatuz, haurren irudi objektiboagoa lortuko da, osatuagoa.

Gainera, behatzea eta interpretatzea egin beharreko ariketak direla nabarmendu zuen, garrantzitsuak hezitzaileak haurra ezagutu ahal izateko eta honekin enpatizatzeke eta harremana sortzeko.

Baina, behatzen ere ikasi egin behar da, Hoyuelosen esanetan. Zeri erreparatu? Nondik hasi? Behaketa galdera batetik abiatzea iradoki zien: Zer egin nahi du? Zein da bere asmoa une horretan? Zer lortu nahi du? Eta, horrekin batera, taldean partekatzen eta guztien artean interpretazio osoagoa egiten ere, trebatu egin behar direla azaldu zien. Izan ere, formazio-zikloan ikusi bezala, ariketa hori egiteko ohiturarik izan ezean, zailtasunak izan daitezke besteak esandakolari zerbait gehitzeko, edo baita desadostasuna agertzeko ere. Hori dela eta, behatzen, interpretatzen eta horiek taldean osatzen trebatzeko hamaika ariketa egin zuten Hoyuelosekin, bakoitzaren subjektibotasunetik denen artean objektibotasunera hurbiltzeko. •

Hezkuntza, praktika moral eta politikoa

Azken ikasturteetan, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (FIHEZI) irakasle, ikertzaile eta ikasle talde batek “Unibertsitatea eta eraldaketa soziala” izeneko jardunaldiak antolatu ditugu, eta jardunaldi horietako zenbait jarduera blog batean bildu ditugu (unibertsitateraldaketa.wordpress.com). Esperientzia horretatik ateratako ideia garrantzitsuenak biltzen ditu honako testu honek. Testuaren lehenengo zatian, “eraldaketa soziala”ri buruz arituko gara orokorrean, eta, bigarreanean, unibertsitateak zeregin horretan egin dezakeen ekarpena eztabaidatuko dugu.

Eraldaketa soziala

Ikuspegi kritikotik, teoria ekonomiko liberalaren ondorioz eratzen den eredu sozioekonomikoa, hau da, kapitalismoa, zalantzan jarri eta kritikatu beharra dago. Izan ere:

- Gainbalioen bilaketaren eta antzeko mekanismoen bidez, gizartearen gehiengo baten esplotazioan oinarritzen den sistema da (esplotazioaren kritika).

- Beharrezkoa du etengabeko hazkundea, eta logika horren ondorioa da arazo ekologikoa. Hau da, kapitalismoak natura ere ustiatu egiten du, eta, horren ondorioz, sistema honek ezin du garapen iraunkorra ziur-

Marta LUXAN SERRANO

EHU-KO IRAKASLE

Joxi IMAZ BENGOTXEA

EHU-KO IRAKASLE

tatu (kritika ekologikoa).

- Kapitalismoa ez da batere demokratikoa, aberastasun ekonomikoaren eta boterearen kontzentrazioa bultzatzen baitu (kontzentrazioaren eta demokrazia ezaren kritika).

- Kapitalismoak denonak eta publikoak diren baliabideak pribatizatzen ditu (pribatizazioaren kritika).

- Desberdintasun handiak sortzen ditu, modu bidegabean, gainera, bai gizarte industrial eta postindustrialen barnean, bai munduko herrien artean ere (desberdintasunaren kritika).

Postkapitalismorako trantsizioa pentsatzen eta prestatzen hasi beharra dago, beraz. 2012ko II. Jardunaldietan Joseba Azkarragak “hazkunde osteko garaia” esaten zion horretarako prestatzen, *transition* mugimendua eta horrelako erreferentziak erabiliz horretarako (transitionnetwork.org).

Garbi eduki behar dugu, adibidez, gure garaiko bi arazo sozial nagusiak bidegabeko eta gehiegizko desberdintasun sozialak eta ekologia direla.

Desberdintasun sozialei dagokienez, honako hau da azken urte eta hamarkadetan Nazio Batuen datuek

Garbiñe BEREZIARTUA ETXEBERRIA

MU-KO IRAKASLE

Asier LAUZIRIKA ARRONDO

EHU-KO IRAKASLE

behin eta berriro errepikatzen duten eskema: 1.000 milioi pertsona kontsumoaren gizartean bizi gara, herri industrializatu edo postindustrializatuetak gehienak eta beste herrietako eliteak; beste 5.000 milioi pertsona gizarte horretan sartzeko desiratzen bizi dira, munduan “errenta ertaina” edo “baxua” esaten denarekin (per capita errentak ematen duen batez bestekoaren arabera); eta 1.000 milioi pertsona miseria larrian bizi dira (gosea pasatuz, edateko urik gabe, erraz senda daitezkeen gaixotasunen ondorioz hilez, etab.). Ekologiari dagokionez ere, diagnostikoa ezaguna da: jendarte industrialek (bai kapitalistak eta bai sozialistak) baliabide natural gehiegi gastatzen dituzte, eta kutsadura nahiz hondakin gehiegi produzitzen dute.

Eta, izan daitezkeen irtenbideen bilaketan, biak erabat loturik daude: une honetan, mugatuak eta finituak diren baliabideen % 80 gutxiengoak kontsumitzen dugu (kontsumoaren gizartean bizi garen 1.000 milioi pertsonak), eta bizimodu horrekin arazo ekologiko larriak sortzen dizkiogu planetari. Beraz, nabarmena da jende guztiak (7.000 milioi pertsonak) ezin

duela horrela bizi, ezin dela bizi-estilo hori unibertsalizatu. Ez dago denontzat. Aritmetikak, ariketa matematiko soil batek, erakusten digu hori, ekologistek “aztarna ekologikoa” deitu duten horrek.

Zer aukera ditugu? Proposamen klasiko eta modernoago ugari dauzagu egungo sistema gainditzeko:

- Jabetza pribatuari espazioak lapurtzea, aberastasunaren banaketa (zerga-politiken bidez) eta ekonomiako sektore estrategikoen kontrol publikoa proposatzen dizkigu Marxismoak.

- Korrante libertarioek autoeraketa edo autokudeaketa defendatu izan dute, estatuaren zain egon gabe aldaketa gaur eta hemen hasiz.

- Mugimendu ekologistak “lurraldearen defentsa”, “garapenkeria edo desarrollismoaren aurkako borroka”, “deshazkundera” eta antzeko proposamen interesgarriak egin ditu azken urteotan.

- Ekonomia feministak “bizitza” zentroan jartzea proposatzen digu, espezieak bizirik irauteko beharrezkoa duen “bizitzaren ugalketa” zentroan jartzea, “zaintza”ri lehentasuna emanez eta lanak banatuz. Azkeneko ildo hau azaltzeko, Amaia Pérez Orozco izan genuen gurekin 2011ko I. Jardunaldietan. “Feminismo antikapitalista”ren barnean kokatzen du Pérez Orozco bere burua, eta ezker klasikoaren planteamendua baino sakonagoa eta zabalagoa da, gure ustez, haren ikuspegia: ezker tradizionalarentzat, gatazka sozialen artean garrantzitsuen kapitalaren eta lanaren artekoa zen (lanaren ordean enplegua esan beharko litzatekeen arren); ikuspegi berri hauetan, ordea, gatazka sakonagoa da, kapitalaren eta bizitzaren artekoa.



Unibertsitatea eta eraldaketa soziala

Beste edozein erakunde soziali bezala, unibertsitateari ere badagokio galdera honi erantzutea: zein da bere helburu nagusia, dagoenaren erreproduktzioa, edota eraldaketa soziala? XX. mendeko hezkuntza-aditu nagusiek errepikatu dutenez, hezkuntza-prozesuetan geure buruari egin behar diogun lehendabiziko galderetako bat hau da: “zertarako hezkuntza?”.

2011ko I. Jardunaldietan, gurekin izan zen Montserrat Galceran, eta, haren iritzi, adibidez, azken urteotako hezkuntza-erreformaren eta politiken atzean, unibertsitatea “ezagutzaren kapitalismoa” deituriko horretan integratzeko prozesua dago, esparru horretan negozio-aukera ikusi delako. Batetik, munduan zehar milioika pertsona dabilelako unibertsitateko titulu baten bila eta ezagutzaren gizar-tean enplegu duin bat izateko beharrezkoa den prestakuntzaren bila; eta, bestetik, kapitalismo berrian, informazioa, ezagutza, komunikazioa, ikerketa, berrikuntza, garapena eta horrelakoak jendartearen eta ekonomiaren funtsezko ardatz bihurtu direlako.

Modernitatearen hasieratik unibertsitateek izan duten garapena hauze litzateke, ikuspegi horretatik: lehendabiziko unibertsitate europarren sorreratik XX. mendearen erdira arte, “eliteko unibertsitate”en garaia izan zen, elite batzuentzat pentsatutako unibertsitateak baitziren; XX. mendearen bigarren erdian, “masa-unibertsitatea” hasi zen zabaltzen, langile-klasearen seme-alabak iristean gainjendetzatzen hasi baitzen unibertsitatea; eta, azken urte hauetan, “enpresa-unibertsitatea” da nagusitzen ari den eredua.

Prozesu horren adibide bat ikerketaren esparruan gertatzen dena litzateke: bioteknologia eta horrelako jakintza-arloak lehenesten dira, merkatuari (kasu honetan industria farmazeutikoari) horrela interesatzen zaiolako, hor inbertitzen den diruak gero irabazi ekonomikoak ekarriko dituelako. Eta, logika horretan, Gizarte Zientziak bigarren mailan geratzen dira, noski, zuzeneko eta epe motzeko itzulera ekonomiko bat ikusten ez zaiolako arlo horietan ere egin beharko litzatekeen inbertsioari.

Boaventura de Sousa Santos soziologoarentzat, unibertsitatea ez da agian horren hegemonikoa izango

XXI. mendean, baina oraindik ere beharrezkoa izango da. Haren ezaugarrietako bat orainaldia epe motz eta luzearekin harremanetan jartzea da, ekoizten dituen prestakuntza eta ezagutzen bidez eta eztabaida ireki eta kritikorako sortzen duen espazio publikoaren bidez. Baina jende askori ez zaio epe luzea interesatzen, eta beste batzuei ez zaie gustatzen beraien interesak eta boterea kritikatzeko edo zalantzan jartzea.

Unibertsitatearen eta enpresamunduen arteko harremana ez da, gainera, berdinen arteko harremana. Ikuspegi kritiko batetik, gertatzen ari dena zera da: unibertsitatea enpresen interesen menpeko bihurtzen ari da, eta helburu nagusia unibertsitatean ekoizten den ezagutza ekonomikoki errentagarria izatea da.

Noski, hor kokatu behar da enpresek unibertsitatea diruz laguntzea ere, alegia, finantzaketari buruzko eztabaida. Helburuak hauek izango dira: 1) dirua emango duen ezagutzak topatzea; eta 2) merkaturako langile gaituak prestatzea.

Dinamika horiek beste arlo askotara ere zabaltzen dira, noski. Ikaslea, adibidez, zerbitzu baten erosle edo kontsumitzaile bihurtzen da, eta hor kokatzen dira tasen garestitzea, beken ordeztu maileguak ematea, lehiakortasuna, etab. Eta, horrez gain, enpresa-kudeaketa nagusitzea; dirua eman duten enpresetako ordezkariak gizarte-kontseiluetan egotea; kalitate-agentziak eta etengabeko sinestamenduetarako kultura edota rankingak suspertzea.

Erreforma horiek mundu osoan ari dira gertatzen, gainera. 1990eko hamarkadatik aurrera, Munduko Bankuak eta Munduko Merkataritza Elkarteak “goi-hezkuntzaren merkatu globala” sortzea dute helburu. Bide horretan, Europako unibertsitateak atzean geratzen ari ziren, eta hori da, ziurrenik, Bologna prozesua abian jartzeko arrazoietako bat.

UNESCOren arabera, adibidez, 2,8 milioi ikasle zeuden matrikulatuta beren jatorrizko estatutik kanpoko unibertsitatearen batean 2007an, aurreko urtean baino %4,6 gehiago. Eta ikasle gehien jasotzen zituzten herrialdeak Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Australia... ziren.

Ikerketa ere globalizazio-prozesu horretan sartu da, eta Ikerketa Espazio Europarraren sorrera da horren adibideetako bat. Helburuak “bikaintasuna” izan beharko luke, baina, ikuspegi kritiko batetik, gehiago da zentralizazioa, elitizazioa eta merkatura begirako ikerketa sustatzea. Zeren jende guztia izan liteke lehiakor, oso lehiakorra den sistema batean? Erantzuna, nabaria denez, ezezkoa da. Klaseen arabera banatuta dagoen jendarte baterako liberalismoak saltzen duen “meritokraziaren logikan oinarritutako mugikortasun sozial indibiduala”ren mitoarekin gertatzen denaren antzeko zerbaitek gertatzen da hemen ere: gutxi batzuentzat bakarrik da posible, eta sistemak gutxi horiek erabiltzen ditu bere burua zurtzeko. Ikerketarako Europako Esparru Programetan, adibidez, unibertsitatean lan egiten duten zientzialari gutxi aurkezten dira, eta horietatik %10ek lortzen dute diru-laguntza. Horixe da sistema bat oso lehiakorra (eta oso ona) izatea, diskurtso ofizialen arabera.

Eskema horretan, ezagutza eta lan-merkatua jendartearen eta pertsonen segmentazio eta hierarkizazioarako erabiltzen dira. Kontuan izanda unibertsitateko titulazioa ez dela nahikoa izango prestakuntza maila on bat, enplegu duin bat, estatua eta jendartearen leku bat bilatzeko; horrez gain, oso garrantzitsuak izango dira beste hainbat alderdi, hala nola zer unibertsitatekoa den sinestamendu hori, zer ikasketetako den, edota zer mailakoa (gradua edo masterra...). Eta ez dugu ahaztu behar unibertsitatean bertan ere infor-

mazioaren, komunikazioaren eta ezagutzaren arloko langile askok edo gehienek bizi duten prekarizazioa eta esplotazioa.

Egoera horren aurrean, erresistentzia-adierazpen nagusiak ikasleen mugimenduarenak izan dira: unibertsitate merkatuaren logikara erabat integratu nahi dutenen aurrean, denontzako kalitatezko hezkuntza bat defendatu dute, ezagutza “ondasun komuna” dela defendatuz.

“Merkaturako prestakuntza”ren garrantzia defendatzen dutenen aurrean, hauxe galdetzen dute erresistentzia-mugimendu horiek: ba al du zentzurik eskola-ibilbidean gero eta diru gehiago inbertitzeak, gazteen zati handi bat lan gabe badago, eta gainerakoetatik gehienak enplegu prekariora badute?

Borrokari ari diren sektore horiek unibertsitateko hezkuntza modu zabalagoan eta desberdinean ulertzen dute: ez soilik lan-merkatuaren prestakuntza edo instrukzio gisa, curriculum egiteko bitarteko gisa, beharrezkoa den eraldaketa sakonera ezagutza eta hezkuntza gisa baizik. Horren guztiaren adibideetako bat izan daiteke Espainiako “suminduen” mugimenduekin lotuta agertzen den “*Universidades Indignadas de Madrid*” kolektiboa (tomalafacultad.net). Zentzu horretan, irakasle suminduen idatziak ere topa genitzake azken urteotan, eta horietako batzuek, gainera, desobedientzia akademikorako deia egiten dute.

Erresistentzian eta borrokari oinarritutako bestelako unibertsitate bat aldarrikatzen da, beraz, errealitate sozialetatik eta beste modu bateko herri mugimendu kritikoetatik gertuagokoa eta haiekin elkarlanean arituko dena.

Subjektu eta subjektibotasun berri bat hezi eta eraiki nahi da, ez merkaturako errentagarria, otzana, pragmatikoa eta postideologikoa, ekintzarako, militantziarako eta parte-hartze



soziopolitikorako prestatua baizik.

Diskurtso kritiko horietako batzuetan, ez da krisi aurreko unibertsitate publikoaren defentsa edo aldarrikapena egiten, eta aipatzekoa da horiere. Batetik, lehendik ere utzita zeukalako unibertsitateak eduki behar lukeen konpromiso soziala; eta, bestetik, estatua bera izan delako gaur egungo prozesuak bultzatu dituen. Unibertsitate publiko baino gehiago, estatuaren unibertsitate deitu behar genioke, beraz, unibertsitate hari, boterean dauden eliteekin eta sistema kapitalistaren interesekin lotuta zegoelako erabat. Unibertsitate horren defentsa egin beharrean, bestelako unibertsitate bat eta bestelako ikerketa bat aldarrikatzen dira: ezagutza eta ikerketa militantea, eta politikoki kokatua. Ahalik eta objektiboen izaten saiatu behar dugu unibertsitatean, horretarako teoria, metodo eta teknika zientifikoak erabiliz; baina horrek ez du esan nahi neutralak izan behar dugunik.

Zentzu horretan, Alex Callinicos-ek eta beste zenbaitek “intelektual publikoa” defendatzen dute, bere gizarteko eztabaida sozialetan parte hartzen duena (Frantzian, Zolak, Sartrek eta Bourdieuk bete duten papeira, adibidez); eta, urrunago joanez, baita “intelektual organikoa” ere, herri-mugimenduekin eta alderdi po-

litikoeekin batera lan egiten duena.

Ikerketaren eta militantziaren arteko mugetan kokatzen dira Observatorio Metropolitano (observatorio-metropolitano.org) eta besten zenbait behatoki, Instituto de Ciencias Económicas y de la Autogestión eta antzeko ikerketa eta irakaskuntzako institutuak (iceautogestion.org), eta Universidad Nómada (universidad-nomada.net), Universidad Invisíbel (invisibel.net), Universidad Libre Experimental-ULEX (ulexmalaga.blogspot.com), Unibersitat Lliure La Rimaia (unillireularimaia.org) edota Hego Ameriketako Mugimendu Sozialen Unibertsitate Popularra eta antzeko beste unibertsitate batzuk.

Laborategi eta unibertsitate horietako batzuk *Edu-Factory* izeneko nazioarteko sarean biltzen dira (edufactory.org), “ikerketa eta ekintza politikorako” sarean, ikasleek eta langile prekarioek ez baitute ordaindu nahi unibertsitatearen krisia eta krisi finantzario globala. Horregatik, krisia eraldaketa sakonak eragiteko aprobetxatzea proposatzen dute, unibertsitateak bere orain arteko historia osoan zehar oso gutxitan erakutsi duen konpromiso soziala aldarrikatuz. Lehenago aipatu dugunez, faltsua iruditzen baitzaie unibertsitate publikoaren defentsaren eta errefor-

ma neoliberalen arteko eztabaida eskematikoa, azken urteotan estatua bera izan baita unibertsitate-enpresa globala (*corporate global university*) eta arlo publikoaren kudeaketa (*new public management*) bultzatu dituen. Azken batean, ongizate-estatuaren desmuntatze-prozesuaren barnean kokatzen dira erreforma horiek guztiak, eta horretan bat egiten dute neoliberalak eta sozialdemokratik. Iraganarekiko nostalgiarik ez genuke eduki behar, beraz. Marfilezko dorretik eta dorrerako katedradun mandarinek kudeatutako unibertsitatearen nostalgiarik ez genuke eduki behar.

Eztabaida klasiko eta handi horietako batera eramango gaitu horrek guztiak: posible ote dira benetako aldaketa sakonak sistemaren barne-
tik, edo, horretarako, kanpora atera behar dugu, eta erabat gauza berriak abian jarri? Euskal Herriko testuingurura etorrita, EHUK eta UEUK ordezkak litzakete “barne/kanpo” ardatzak... Gure jardunaldietan, eraldaketa kanpotik eta barne-
tik bultzatu behar dela dioten iritziak nagusitu dira, ahalmenen arabera. Zenbaitentzat, ordea, estatuaren unibertsitate publikoek ez dute aukerarik ematen benetako eraldaketarako, sistemaren eta boterearen logika eta dinamiketan erabat harapatuta daudelako. Horien ustez,

mugetan kokatzen diren unibertsitateak behar dira, beraz, mugimendu sozialen, herriaren, hiriaren eta zientziaren arteko mugetan kokatuko diren laborategi eta zentro berriak.

Edozein modutan, badirudi unibertsitateak herriarekin elkarlanean aritu beharko lukeela, jendartearentzat lan egin beharko lukeela, beharrezkoa den eraldaketa sozial sakanerako. Ikerketa-gaiei dagokienez, adibidez, *mainstream* agenda akademikotik kanpo geratzen diren arloak landu daitezke (prekarietatea izan daiteke adibide bat, etxebizitzaren arazoa beste bat, mugimendu sozialen borroka hirugarrena, etab.). Eta lan egiteko beste modu batzuk ere proba daitezke: ezagutzaren erakuntza kolektiboa jabetza pribatuaren aurrean (*copyright-copyleft* eztabaidak, software askearen adibidea...), bestelako metodologia batzuk erabiltzea (ikerketa, ekintza eta horrelako gehiago, non subjektu eta eragile sozialek ere parte hartzen duten), etab.

Amaitzeko

Eraldaketa sozial sakon eta erradikala beharrezko eta posible dela esan dugu. Helburua ez da, beraz, 2007. urte aurreko egoerara itzultzea (ongizate-estatu kapitalista mendebalde industrial edo postindustrialean). Zalantzan jarri behar dira gure zibilizazioaren oinarrian dauden ideia nagusietako batzuk: etengabeko hazkundearen beharra; gero eta epe laburragoan gero eta gehiago produzitu beharra; merkatua jendartearen zentroan jartzea eta merkatuaren logikak jendartearen espazio guztiak kolonizatzea...

Zenbaiten ustez (Althusser lehenago, García Olivo edo Rodríguez Mora orain), eraldaketa hori ezin da bultzatu eskolatik edo unibertsitate-tik, Estatuaren eta kapitalismoaren erreproduktzio-tresnak direlako. Gure ustez, ordea, unibertsitateak ere bultzatzea beharrezkoa den eral-

daketa soziala. Unibertsitatea ere beste borroka-zelai bat da, eta, horretarako, “kanpo/barne” eskema hautsi beharko litzateke, zirrikituak edo pitzadurak irekiz borroka sozial eta politikoak unibertsitateara ekartzeko, eta unibertsitatea borroka horietan buru-belarri sarrarazteko. Unibertsitateak eraldaketa sozialerako hezi beharko luke, beraz, eta aldaketa soziala bultzatzeko ikertu beharko luke, azken urte eta hamarkadetakako erreformak justu aurkako norabidean doazen arren. Unibertsitatearen funtzio sozial nagusia bere garaiko arazo sozial garrantzitsuenei erantzutea da: gehiegizko desberdintasun sozialak, ekologia... Horrekin erakutsi behar du konpromiso soziala, hor eduki behar du inpaktua eta eragina. Izan dadila unibertsitatea hausnarketa, kritika eta aldaketarako espazioa, eta ez dagoenaren erreproduktzio mekanikorako makineria soilik. Lan-merkatu-rako prestakuntzarekin edo gaikuntzarekin batera, konpromiso soziale-rako hezkuntza ere eskaini behar du.

Kontzientzia eta konpromisoa behar dira horretarako, helburua garbi edukiz. Botereak ezkutatu egin nahi baitu eraldaketa sozialaren beharra, ezkutatu egin nahi baitu gatazka soziala. Unibertsitateak eta ikerketa militantek, aldiz, horixe egin behar dute, ikusarazi krisi globala eta zapalkuntza nahiz menderatze-estrategiak (objektiboak: langabezia, prekarietatea, bazterketa soziala, pobrezia...; eta subjektiboak: beldurra eta konformismoa, Anaia Handia eta Mundu Zoriontsua, makila eta azenarioa).

2013ko udazkenean izan ziren III. Jardunaldietan, horietan izan ziren gai nagusiak: zapalkuntza, menderatzea eta kontrol soziala. Horretarako, espetxea erabili zen adibide nagusi gisa, espetxea azalduz gure egunerokotasuna ere esplikatzea baitaiteke: kartzelaren bidez lortzen den kontrol soziala, kanpokoak ere beldurtuz eta, beraz, haien askatasuna mugatuz; ba-

kartzearen garrantzia, eta horri aurre egiteko norbera bakartze horretara ohitzea (menderatzearen barneratzea); egiturarekiko dependentzia, etab. Sistema horretan, askatasuna ez da eskubidea, boterearen esku gertzen den karitate-jarduera baizik. Eta logika hori errepikatu egiten da, baita kartzela “terapeutiko” bihurtzen den ere, hau da, baita botereak menderatzea eta zapalkuntza goxatzen dituen ere. Kasu horretan, kartzelako zaindaria terapeuta bihurtzen da, eta presoek biltzarrak, antzerkia eta yoga egiten dituzte. Edo unibertsitatean irakasle aurrerakoiak metodologia aktiboak eta aurrerakoiak erabiltzen ditu. Baina hori ez da nahikoa gure helbururako. Horrela adierazten du Henry Giroux-ek: “Nik praktika moral eta politiko bezala ulertzen dut hezkuntza, zeren hezkuntzak beti eskatzen du etorkizunaren ikuspegi bat edukitzea (...) Hezkuntza beti da politikoa”. Imanol Galfarso-oren ustez ere, lan intelektual eta akademikoa defendatu beharra dago, “arazoak” sortzeko lan egitea beharrezkoa baita. Unibertsitatea jendarteko benetako arazoetatik urrun bizi dela? “Mandarinak” bazter guztietan daude: unibertsitatean bai, baina baita kalean, alderdi politikoetan, mugimendu sozialean eta abarretan ere (Frankfurteko eskolak termino hori erabiltzen zuen errealtatetik urrutu bere marfilezko dorrean lasai bizi den intelektual diruduna izendatzeko). Euskal Herriak behar du unibertsitatea, unean uneko eta lekuan lekuko jakintza onena eta puntakoen eskaintzeko. Oraindik garaiz gabilta, beraz, eskuak zikintzeko. Egon gaitezen hemen bertan, Euskal Herrian zentratuta, hemengo borroka partikularretan borroka unibertsal- la besarkatzen, eta unibertsitatean bertan ere borroka partikularrak eta unibertsalak besarkatzen. •



www. **amazulo**  .com

Haurrei beraien berezko ahalmenetaz konturatzen, berezko erdiespenak erabiltzen eta beraien lorpenetatik ikasten laguntzen die mugimendu autonomo askeak. Horretarako, ekipamendu egokiak behar-beharrezkoak dira ziurtasuna eskaintzeko eta motrizitatea garatzeko.

eskola ekipamendua



Zer ekarpen egin diezaioke NEUROZIENTZIA KOGNITIBOAK hezkuntzari?



Neurozientzia kognitiboak, gaur egun, oinarri sendoa eskaintzen die hezkuntzaren munduko ikerketei eta praktikei. Izan ere, jakitearen, sentitzearen eta egitearen barne-dimentsioa nola eraikitzen den eta nola funtzionatzen duen ulertzeko balio du. Hauek dira neurozientzia kognitiboaren oinarritzko lau alderdi nagusiak:

1. Garunaren eta giza adimenaren plastikotasuna ia-ia mugagabea da: garuna plastikoa da, ikasteko sortua da; eta, ingurunearekin dituen interakzioen arabera, aldatu egiten da. Hori ez da haurtzaroan soilik gertatzen: garunak bizitza osoan zehar du ikasten jarraitzeko aukera, aurrez dituen konexioak zabalduz edo aldatuz, edo konexio berriak sortuz. Ingurunean gertatzen diren aldaketetara malgutasunez egokitzeko prestatuta dago gizakia.

2. Garuneko mekanismo eta konexio gehienak kontzientziaren azpian koka-



ANGEL PEREZ GOMEZ

DIDAKTIKAKO KATEDRADUNA
MALAGAKO UNIBERTSITATEAN

tzen dira: hau da, modu automatiko eta ohikoan gertatzen dira, bai pertzepzioari dagozkionak, bai portarari eta erabakiak hartzeari dagozkienak. Sare horrek, ohituraz eta mendetasun ez-kontzientez osatuta dagoenez, pertsonen bizimodua baldintzatzen du, eta oztopo ere bilaka daiteke. *Habitus* edo *gelstat* kontzeptuekin du lotura. Pentsatzen, sentitzen

eta egiten dugun hori sozialki, moraliki eta pertsonalki legitimatzen duten kontaktak hartzen eta baliatzen ditugu, gure *habitus*-en sare hori babesteko eta indartzeko.

Mende erdi baino gehiago pasatu dugu inkontzientea alboratzen, baina badirudi gaur egun argi geratu dela gure jakintzaren zati handi bat implizitua, ezkutukoa eta inkontzientea dela. Deliberazio kontzientetzat hartzen denak lotura txikia du unean uneko gertaerak kontrolatzeko gaitasunarekin; aitzitik, erlasionaturik dago aurrez planifikatzearekin, patxadaz erabakitzearekin eta ondoren ebaluatzearekin.

3. Zirrarak eta arrazoia banaezinak dira: zirraretan arrazionaltasuna dago, eta arrazoian sentiberatasuna. Neurozientzia kognitiboaren eremuan egin diren azken azterketek erakusten ditugenez, pertsona zinez adimentsuak ez dira haragitu gabeko garun hutsak, zirrara neutraletatik funtzionatzen

duzenak, baizik eta beren interesekoak diren egoerekin benetan konprometituriko pertsonak, pasioz eta babilioz beteak. Intuizioek eta zirrarek modu isilean bideratzen dute ikaste-prozesuaren, erabakimenaren eta portaeren intentsitatea eta zentzua.

Bizirik irauteko, inguratzen gaituen mundua banatu egiten dugu, *onuragarri* eta *kaltegarri* kontzeptuen arabera. Gizakiak inguratzen duten gauzak berarentzat *onak* edo *txarrak* diren jakin behar du, eta, hein handi batean, hortik datorkio ikasteko grina; beraz, gure esperientzia ez da neutroa izango.

4. 'Ulertu eta egin nahi dugunaren arabera' ulertzen eta egiten dugu: zirraren munduarekin lotura estuan agertzen zaigu nahien eta intentzioen eremua. Eremu horrek kontzientziaren beharrik gabe funtzionatzen du: gure garuneko zirkuituetan iltzatuta dago, aurrez izandako bizipenen eraginez. Horrekin lotuta, giza arretaren garrantzia erabakigarria eta paradoxi-

koa da. Davidson-ek garatutako *arreta itsua*-ren kontzeptua nabarmendu nahi nuke: zeregin batean jartzen badugu arreta osoa, gainerakoa sumatzeko gaitasuna galdu egiten dugu. Ez da erraza, normalean, ikasketetan eta lanean arrakasta dakarkigunak, arreta kontzentratu itsuak, alegia, aldi berean mugatu egiten gaituela onartzea. Baina munduari begiratzeko dugun moduak baztertu egiten du errealitatearen zati handi bat. Gure arreta bereganatzen duen horrek, alegia, ikasketek edo lanak, gure pasioek eta ekintzek, aldatu egiten dute gure garunaren biologia. Gure arretaren gati-bu gara: ikusi nahi dugun hura ikusten dugu.

Finean, neurozientzia kognitiboren eremuan egun egindako ikerketek agerian utzi dute *kontzientzia inkontzientea*-ren garrantzia, baita gure "pilotu automatikoa" berreraikitze-ko beharra ere, modu erabakigarrian eta etengabe abian baita, kontzientziaren beharrik gabe. Baina pertsonaren baitan gertatzen diren proze-

Bizirauteko, inguratzen gaituen mundua banatzen dugu onuragarri eta kaltegarri kontzeptuen arabera. Gizakiak behar du jakin inguratzen duten gauzak berarentzat onak edo txarrak diren, eta hein handi batean hortik datorkio ikasteko grina; beraz, gure esperientzia ez da neutroa izango.



suetan arreta berezia jartzeak paradoxa batera garamatza. Izan ere, zenbat eta gehiago ulertu garunaren funtzionamendua, orduan eta behar handiagoa dugu norbanako horren testuin-



Baina, pertsonaren baitan gertatzen diren prozesuetan arreta berezia

jartzeak paradoxa batera garamatza. Izan ere,

zenbat eta gehiago ulertu garunaren funtzionamendua, orduan eta behar handiagoa dugu norbanako horren testuingurua eta biografia ezagutzeko, norbanako hori ulertu ahal izateko.


guria eta biografia ezagutzeko, norbanako hori ulertu ahal izateko.

Pertzepzio-, interpretazio-, balorazio- eta erreakzio-ekintza horiek, kontzientearen azpian kokatzen direnak, *inkontzientzia kognitibo* gisa izendatzen hasi gara, inkontzientek izanagatik era berean kognitiboak eta arrazionalak direla adierazteko. Badirudi, beraz, gutxieneko konplexutasuna duten prozesu psikologiko guztietan daudela osagai automatikoak eta osagai kontzientek.

Mekanismo inkontzientek hezkuntzan

Hezkuntzaren zeregina kontzientzia sortzera eta garatzera mugatzen bada, eta aintzat hartzen ez badu mekanismo inkontzientek duten eskuhartze erabakigarria, *miopia pedagogikoa* izango da hori, nire ustez, eta behin eta berriz errepikatzen diren hezkuntza-porroten erantzule ere bai, hein handi batean.

Eskola arruntetan, normalean zirrarak osagai subsidiariotzat hartzen dira, kontrolatu beharreko faktore-



tzat, ikaste-prozesua eten ez dezaten; kognizio on eta objektiboaren antagonista gisa hartzen dira. Errealitatean, ordea, zirrarak ikaste-prozesuaren funtsezko osagaiak dira. Ikasle-estrategikoez eskema intuitibo indartsuak garatzen dituzte: esperientziatik datozenak, aurrez izandako harremanetan sortuak, ikerketa- eta hausnarketa-prozesuetan edo horien ondoren eginiko ebaluazioetan finduak. Eskema horiek ikaste-prozesuaren, erabakimenaren eta portarearen norabidea zehazten dute. Izan ere, gure subkontzientean dauden zirrarak hartzen ditugun erabaki guztiak baldintzatzen dituzte. Beraz, bai gorputzak bai garunak, biek, lotura estua dute gizakiaren ikaste-prozesuarekin.

Horrenbestez, neurozientzia kognitiboaren eremuan eginiko ikerketek erakusten digutenez, ezin ditugu luzaroago justifikatu gogoak eta gorputza bereizten dituzten praktika edo teoria pedagogikoak. Zirrarak kutsaturiko arrazoiak baino areago, kognitiboki informaturiko zirrarez hitz egin behar genuke. Giza garuna ez baita kalkuluak egiteko makina, pasiorik gabea, objektiboa eta neutroa, erabaki arrazoituak hartzen dituen gertaeren analisi hotza egin ondoren; ezer

baino lehen, gizakia instantzia emozionala da, bizirik irauteaz kezkatua, atsegina bilatzen duena eta sufrimendua eta mina baztertzen dituen. Zirrara eta arrazoiak ez dira antagonistak; aitzitik, elkarlanean aritu ohi dira. Sortzen dizkiguten zirraren arabera onartzen edo baztertzen ditugu ideiak, egoerak edo pertsonak.

Beraz, arrazoizkotasun berri bat behar dugu, sakonagoa, garunaren funtzionamenduaren inguruan ditugun jakintzak barneratuko dituen; onartuko duena garunak cortex erreflexiboaren (pentsamendua) eta amigdala erreflexuaren (zirrarak) etengabeko elkarrizketaren bidez funtzionatzen duela, besteak beste. Arrazoizkotasun berri bat, *ni*-a berre-raikitzea, gure *habitus*-ak berritzea, norbanakoaren hazkunde autonomorako gakoa dela ulertuko duena; bestela esanda, nik heztea esaten dudana horretarako. Izan ere, norbanakoa haz dadin, zalantzan jarri eta erlatibizatu egin behar ditu jakintzarako, sentitzeko eta ekintzarako dituen tresnak, eta bere esperientzien eremua zabaldu egin behar du; ikasteko komunitateetako ekintzetan, hausnarketetan, eztabaidetan, proiektuetan, ikerketetan... parte hartu behar du. •

argitalpenak




Erlauntza

Pascale Hédelin eta Sophie Lebot

TTARTTALO

Nolakoak dira erlauntzak? Zer funtzio betetzen dute erreginak edo erle langileek? Nola biltzen dute ezia? Nola ekoizten dute? Nola komunikatzen dira elkarren artean? Zer produktu ematen ditu erlauntzak? Istorio baten moduan kontatzeko liburu da honakoa, eta dokumental baten moduan ikustekoa. 5 urtetik gora haurrei zuzendua. •




Hildako bizidunen itsas bidaia

Peter Walker

IBAIZABAL

Zonbiz betetako ontzia, burutik jota dauden piratak, ontzia erreskatatzera doan flota sekretua, eta dantza bat: "Hau da *zombie style!*" Misterioz eta umorez betetako liburuak Za koadrila du protagonista: adituak dira zonbi eta bestelako munstroen aurka borrokatzen, eta ez dute amorerik emango zeregina horretan. •



Ipurtargien herrian

R. Olasagasti eta M. Valverde

ELKAR

Erreka ondoko etxe gupildun batean bizi da Lur. Herrian askok sorgintzat dauka, orain agertu, orain desagertu egiten delako. Intza, Lizar, Ibai, Elur eta Itsaso, San Joan sua egiteko sastrakak bilatzen ari direla, Lurren etxera hurbilduko dira. Amonak adiskidetsu hartu eta bidaia zoragarri bat egitera gonbidatu ditu. •



Haur besoetakoa. Litxarrien jauna

Unai Iturriaga eta Alex Sanvi

IKASTOLEN ELKARTEA

Haurrek gobernaturiko mundu batean, Haur Besoetakoa da mafiako burua: haren mende daude litxarrerria eta bideo-jokoen merkatu klandestinoak. Tira, edo hala uste du berak behintzat, finean txotxongilo bat besterik ez baita. Harekin ustez merkaturia partekatzen duen Lo-Li-Ta da, benetan, mundu ilun horretan agintzen duena. •



Antxume bizardunak

O. Gonzalez eta F. Fernandez / Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni

PAMIELA ETA KALANDRAKA

Hiru antxumeren istorioa kontatzen du liburu honek: bata handia da, beste bat ertaina da eta bestea, berriz, txikia. Egun batean zubia zeharkatu nahi izan zuten bestaldeko belar goxo-goxoa jateko. Egileak ahozko tradizioan zegoen istorioa hartu eta irudidun liburu moderno bilakatu du. •



Bi begi?

Lucie Felix / Itzultzailea: Joxemari Sestorain

DENONARTEAN

Ebakinez edo trokeladuraz eta kolore biziz betetako liburu bat da. Bertan igel baten eta ontz baten istorioak kontatzen ditu narratzaileak, eta istorioa magiaz bezala gertatzen da. Gainera, norberak hamaika istorio sortzeko aukera ematen du. Txikienei liburuak maitarazteko ipuin bat! •

hik hasi-ren proposamena

Ikastolen Elkartearen familia-egonaldiak

Familiantzako kalitatezko aisialdia euskal giroan, lotura afektiboak sendotzeko giltza

Ikastolen Elkarteko aisialdia taldeak egitasmo berri bat jarriko du martxan uda honetan: asteburuko egonaldiak familian. Izan ere, zenbait familiak arazoak dituzte ordutegiak uztartzeko eta kalitatezko denbora pasatzeko elkarrekin, eta Ikastolen Elkarteak errutinatik kanpo aisialdi-hezitzailea eskaini nahi die, seme-alaben eta gurasoen arteko lotura afektiboak sendotzeko. Eta, hori guztia, euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna sustatuz.



Ikastolen Elkarteak ohiko udalekuen eskaintzari ere eutsiko dio. Ikastolen Elkarte

Haurren eskola ordutegiak nahiz aisialdikoak, gurasoen lanordu luzeak, familiako beste kideren batzuen zaintza... egunerokoan, sarri, zeregin asko eta denbora libre gutxi dute familiek elkarrekin kalitatezko denbora pasatzeko, aisialdiaz gozatzeko eta beraien arteko harremanez disfrutatzeko. Errealitate horren aurrean, Ikastolen Elkartearen aisialdi taldeak uda honetarako egitasmo berri bat proposatu du: familientzako egonaldiak. Helburua da aukera ematea aisialdiaz familian gozatzeko, errutinatik kanpo, beti ere euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna sustatuz. Egunerokoan aurkitzen ez duten elkarrekin pasatzeko kalitatezko denbora eskaintzea familiei, elkarrekin

gozatuz beraien arteko lotura afektiboak indartzeko, azken finean.

Aurten, estreinako urtea izanik, asteburu bateko egonaldia eskainiko du Ikastolen Elkarteak, baina, ondo bidean, datorren ikasturtetik aurrera eskaintza zabaltzea du helburu: egonaldi gehiago, hainbat herritan, eta iraupen luzeagokoak. Ikastolen Elkarteko aisialdi taldearen esanetan, beti ere “Euskal Herriko kultura eta ondarea ezagutaraziz eta naturarenganako ezagutza eta errespetua, elikadura burujabetza, euskararen erabilera eta euskal kultura nahiz nortasuna sustatuz.”

Aurten, ordea, ostiraletik igandera bitarteko egonaldia eskainiko dute. Ekaineko lehen asteburuan izango da,

hilaren 5etik 7ra alegia, Otxandioko (Bizkaia) Koikili aterpetxean. Hain zuzen ere, Otxandiok betetzen ditu baldintzak Ikastolen Elkarteak sortu nahi duen giroa eratzeko: herri euskalduna da, asteburu oso bat euskaraz bizitzeko aukera ematen duena, eta, bere kokapenagatik, naturaz gozatzeko aparteko tokia da: Anboto eta Gorbeia mendilerroen artean, Urkiolak eta bere ibaiadarrak sorturiko haranaren bihotzean. Gainera, herriaren ondare kulturala eta historikoa aberatsa da.

Agertoki horretan “modu partehartzaile eta ludiko batean, familiek euren barne-harremanetan sakontzeko eta familien artean errespetuz bizitzeko

aukera” eskaini nahi die Ikastolen Elkartek. Izan ere, familiaren baitan ez ezik, familien artean ere izango dute aukera harremanak eraikitzeko, guztira bospasei familia elkartuko baitira Otxandioko egonaldian.

Udalekuak ere eskainiko dituzte

Egitasmo berri honetaz gain, Ikastolen Elkartearen aisialdi taldeak ohiko udako eskaintza mantenduko du. Beraz, ikastoletan bertan uztailean udaleku irekiak egingo dituzte 3-7 urte arteko haurrentzat, eta *Enjoy English* programa, jatorrizko ingeles hiztunekin.

Eskolaz kanpo, berriz, askotarikoak dira aukerak: *Lurra eta pilota* udalekuak, Oionen, 7-12 urte artekoentzat; Eusk(h)ara mugara udalekuak, Lapuebla de Labarcan, 8-12 urte artekoentzat; Ingeles udalekuak, Bermeon, Zarautzen eta Sopelan, 10-16 urte artekoentzat; *Zutundu* surf udalekuak, Zarautzen, 10-18 urte artekoentzat; Gazte egonaldiak, Arantzan, 11-18 urte artekoentzat; eta Elkarrekilan Zuberoan, Maulen, 8-14 urte artekoentzat. Gainera, Ipar Irlandan familietan egoteko aukera izango dute 13-17 urte artekoek.



Familia egonaldiak

Non? Otxandion, Bizkaian, Koikili aterpetxean.

Noiz? Ekainaren 5ean, ostiralean, hasi eta ekainaren 7an, igandean, amaituko da egonaldia.

Norentzat? Euskal Herri osoko familiek hartu dezakete parte; lekuak betez gero, ikastoletako familiek izango luekete lehentasuna.

Norekin? Aisiola begirale-eskolako hezitzaileek dinamizatuko dute egonaldia.

Zer? Hainbat jarduera egingo dute dainamizatzaille horien gidaritzapean: familiek elkar ezagutzeko jolasak, gazta-dastaketak, Hontza Extrem abentura-parkera bisita...

Prezioa: 110€pertsonako, pentsio osoan.

Izena emateko eta informazio gehiagorako:

- Bisitatu www.aisialdia.eus webgunea
- Idatzi agrijalba@ehi.ikastola.eus helbide elektronikora.
- Deitu 943 36 96 37 telefono-zenbakira.



Haurrei eta gurasoei elkarrekin aisialdi hezitzaile batez gozatzeko aukera eskaintzea du helburu Ikastolen Elkartek. Ikastolen Elkartea



JON ARTANO

KAZETARIA

Onenak emandako Brasilgo futbol izar ipurterre batek baino kontratu gehiago sinatuta nengoen ni 34 urte betetzerako. Hamaikatxo enpresa, programa eta proiektu komunikatibo pasata. Onenak emandako Brasilgo futbol izar ipurterre batek egin ohi duen moduan, Ipar Amerikara luzatu nuen pausoa. Brasileiroek esaten dute 'erronka berrien premia' asetzeko ekiten diotela abenturari. Bada, nik ere bai; nik, ordea, egiatan.

Igeltsero sartu nintzen. Ikasketarik gabeko hirurogeitaka urteko bi zokor-mazo irakasle. Bata: desintoxikazio zentro batetik atera berria zen alkoholiko estakhanovista ilehoria; bailara zoko laiotzanean zaildutako

Hezkuntza onaren zimenduak


baserritar mutu bat baino lakonikoa-goa. Bestea: duela 40 urte herrialde hartara emigratu zuenetik lana baino egin ez duen gizaseme beltzarana; lanaren lanaz, fortuna bat irabazi eta familia galdutako txiste kontalaria. Biek zaindu egin ninduten, biek eginez ikasarazi zidaten. Esku ahurrak ondo kailatu orduko, ikaslea pozarren jardun zedin bikote hark formula bat ondu zuela konturatu nintzen. Xinplea. Hormigonerara palakada bana bota behar da bakoitzean. Palakada bana errespetutik, pazientziatik, konfiantzatik eta, *last but not least*, umoretik.

Kanadara arribatu eta aldamiogan gora hastea inoiz egin dudan mudantza erradikalena izan da baina, lehengo ere esan dut, ez naiz behin ere izan bertan goxo betiketzekoa. Hala-beharrez batzuetan eta *motu proprio* bestetzuetan, lan-talde askotan aritu izan naiz. Eta horregatik zortekoa naitzela uste dut. Ezegonkortasun horri alde on bat ikusi izan diot betidanik, motxean esanda, hauxe: ideia, lanmolde, ingurune eta lankide berrieta-

ra egokitze ahaleaginean asko ikasten dela.

Ameriketatik etxera, eta ohiko langintzara, itzuli naiz. Zorionez, ideia interesgarriak dituen jendea ezagutzea tokatzen zait egunerokotan. Azken aspaldian arrastorik sako-nena utzi didaten zenbaitek antzeko mezua darabilte: bizi dugun aroak bultzatzen gaitu dagokigun zereginetan hiperespezializatzerara. Eta horrek, akaso, ekoizpen makineriak azkarra-go lan egitea ekarriko du, baina ez zoriontasun indizea haztea.

Jakina, ez dago bide-orririk den-denontzat balio duenik. Baina, urte batzuez behin, aldatzen saiatzeak ez alliguke askotxori on egingo? Sinetsita nago berez dakarkigula noranahiko talentua eta egokitze gaitasuna. Eta dohain horiek inausita bezala, ikusezin, geratu ohi zaizkigula helduarora ailegatzeko. Eta zer nahi duzue esatea? Zein gauza ederra iruditu zaidan estatistikoki dagokidan mundualdi erdia jana dudala, berriz zerotik hasi beharra!



“Botere publikoak izan du joera pentsatzeko garapen ekonomikorako ikasketa teknikoak eta teknologikoak direla baliagarriak. Humanitateak apaindura bat izan dira, eta hori oso arriskutsua da.”

Gregorio Monreal

12. Hazi Hezi

haziera eta heziketarako
euskaraldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen
diogunon **komunitatea**

www.hikhasi.eus



XVI. HIK HASI

Udako Topaketak

Donostia. Uztailak 1, 2 eta 3
Leioa. Uztailak 6, 7 eta 8

Matrikulatzeko azken
eguna: maiatzaren 31

hh



- Pikler-Loczy: haurra ukitzen dugunean
- NIK irakastetik BERAK ikastera
- Pedagogia Sistemikoa ikasgelan
- Gizarte Zientziak - lantegia
- Dolu, galera, aldaketa, gabeziak...
- Eskola libre eta demokratikoak
- Dalcroze erritmika
- Nerabeak eta hezkidetzak
- Musicosophia
- Haurrentzako masajea
- Pentsamendu autonomoa eta sortzailea
- Nola saihestu gatazkak
- Neure burua maitatzen
- KAMISHIBAI tailerra
- Entrenamendu Mentala
- Bideoa
- Gorputz hizkuntza: oinarrizko solasaldiak
- Plastika: kutxa baten balioa
- Espresio tailerra
- Eskola emozionala
- Ortografiaren gakoak
- Tertulia diagogikoak
- Alfabetomotrizitatea
- Yoga eta Kontzentrazio Teknikak eskolan
- Musika Haur Hezkuntzan
- Zinea elkarbizitzan hezteko erraminta
- psikomotrizitatea praktika
- Koplagintza Haur Hezkuntzan
- Heziketa dibertigarria zahartzaroan
- Euskal mitologia eskolan
- Mindfulness eta hezkuntza
- Ilusioa mantenduz, motibatu!
- Literatura eta ipuinak
- Euskaraz aritzeko jolasak
- Hezkuntza proiektuak sortzen

Informazioa: www.hikhasi.eus

943 371 408